

## Herririk Herri | 2

Irizpide sozialen inguruko eztabaida Durangoko ordenantza fiskaletan



## Berbaz | 10

Javier Goikoetxea: "gure kasuan pertsonak diru etekin gaitetik daude"

## Kultura | 12

Durangaldean, 'Publikoari gorroto' ikusteko hiru aukera, asteburuan

## KIROLA | 15



# Taldean arineketan Gurutze Fradesekin

Hasiberri eta esperientziadunak batu dira triatletaren ekimenera. Arineketan egiteko taldea sortu eta elkarregaz kirola egitea da asmoa.

Kepa Aginako

## ZALDIBAR | 8

### Gazteak dira kalean euskara gehien egiten dutenak

Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabileraz egindako azterketak hainbat datu ezagutzera eman ditu.

## ABADIÑO | 6

### "EAJk eta Bilduk ez dute adostasunera heltzeko ezelango borondaterik erakutsi"

Jose Luis Navarro alkateak Atxarteko harrobietara AHTaren hondakinak eramateko proiektua zergatik geldiarazi duen azaldu du. Oposizioaren jarrera gogor kritikatzear gainera, Adifek Mendiolan hondakindegia egiteko zuen asmoa orain martxan jarri dezakeela ohartarazi du.



## Mañaria | 6

Aurrekontuak eratzeko herritarren 50 ekarpen jaso ditu udalak

## Elorrio | 4

EAJ eta Bildu, bakoitza bere aurrekontuak lantzen dabil

## Otxandio | 4

'Xentimorik gabe' antzezlanak eskainiko dute Mekoletan

## Durangaldea | 7

Greba orokorra deitu dute UGT, CCOO, CNT, CGT eta LSBk

RPS 21408

Herriko gudarien kalea, 10 - behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología A. Urreta Jainaga  
RPS 21408

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
www.zarateyelexpe.com

Elorrioren ere aukera onak

# HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak  
@anboto

DURANGO

## Irizpide sozialak, arau fiskalen eztabaidan

EAJk eta PSE-EEK % 2,5 igo dituzte udal tasak; Bilduk eta Aralarrek eredu progresiboa gura dute

**B**ilduk, Aralarrek eta PPK ez dituzte babestu 2013rako ordenantza fiskalak. EAJren eta PSE-EEren botoekin onartu dituzte, eta % 2,5eko igoera ezarri dute. Eztabaida handiena irizpide sozialen inguruan sortu da. Hau da, tasak eta zergak zehazterakoan herritarren egoera ekonomikoa kontuan hartzea. Bilduk eta Aralarrek uste dute eredu progresiboa izan beharko litzakela; "gehiago daukanak gehiago ordaintzea, gutxien daukanaren mesedetan".

**EAJri adostasuna bilatzeko prestutasun eza leporatu diote Bilduk, Aralarrek eta PPK**

Ez daude igoeraren kontra, baina zelan igo ei da gakoa. Gainera, EAJri adostasuna bilatzeko prestutasun eza leporatu diote; PPK ere kritika bera egin dio. PPK ez du zergakigotzeko beharrikikusten. Bere

posizioa argitzeko, udalak zor maila jasangarria -% 28koa- eta milioi bat euroko balantza positiboa ere badaukala azaldu du.

EAJk Bilduri eta Aralarri erantzun die, kritikatu bai, baina gobernatzen duten lekuetan ez direlagai euren filosofia garatzeko. Jeltza-leek gogorarazi dute Atxondon Bilduk ordenantzak izoztu dituela, eta igerilekuena % 2,4 igo duela. "Ez dakigu irizpide soziala den edo ez". PPri aurre egiteko, EAJk esan du harrigarria egiten zaiola popularren aldarrikapena, "ikusita Espainian zergak zelan igotzen diren irizpide sozialik barik".

**Eliza, salbuespen barik**

PSE-EEren iritziz arautegi berriak badauka kutsu soziala. Euren zapi zuzenketa jasotzen ditu arautegiak, aurrez batzordean onartu zirelako. Esaterako, langabetuek % 60ko hobaria edukiko dute zaborren gaineko tasan. Tasa bera izoztu egingo dute dendentzat, eta



2013rako, udal tasak eta zergak % 2,5 igotzea onartu du udalak.

% 50eko deskontua egingo diete paperaren eta kartoiaren bilketa zerbitzuan parte hartzen dutenei. Bestalde, Eliza Katolikoak du salbuespenik edukiko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ). Kulturako erabiltzen ez diren hainbat ondasun eresalbuespen horren barruan egon direla kritikatu du PSE-EEK. Hermanos Maristas de Durango eman du adibide: hilero

**EAJk esan du harrigarria egiten zaiola popularren aldarrikapena**

**Langabetuek % 60ko hobaria edukiko dute zaborren gaineko tasan**

7.334 euroko alokairua kobratzen ei dio udalari bere lokal batean euskaltegia egoteagatik, baina ez du OHZrik ordaintzen. Azken hogeit urteetan antzeko kasuak jazo direla diote sozialistek.

Bilduk eta PPK kontra bozkatu dute, eta Aralar abstenitu egin da, PSE-EEren zuzenketekin irizpide batzuk txertatu direla ulertuta. ■ Markel Onaindia

## Abenduan emango dizkiete jabeei Errotarixuenako babeseko etxeak

Udalak sustatutako babeseko lehenengo etxeak dira Errotarixuenakoak

Eginda eta prest. Errotarixuenako auzoan udalak sustatutako babeseko etxeak amaitu ditu Sukia enpresak, eta prentsari begirako ibilaldi gidatua egin zuten eguaz-

**Jabeek abenduan sartu ahal izango dute bizitzen, baina aurretik ikusiko dute etxea**

tenean. Jabeek abenduan sartu ahal izango dute bizitzen, baina aurretik nork bere etxea ikusteko aukera izango du, Sukiako arduradunek azaldu dutenez. Azaroa-



Sukiako arduradunak, etxe berrien aurrean, eguaztenean.

ren 19ko astean egingo dituzte bisitak etxerik etxe. Erabilgarri eta garbi daude etxe, trasteleku eta garajeak. Guztira, 58 etxe dira, eta bakoitzak bere trastelekua eta garajeko plaza edukiko ditu. Trastelekuak espazio zabala daukate: 13,5 metro karratu.

**Epemuga baino lehen**

Sukiako arduradunek adierazi dute hasieran esperotako epea baino lehenago egongo direla prest etxeak. "Esandakoa bete dugu". Guztizko 58 etxeetatik seik oraindik ez daukate jaberik, egoera ekonomikoa dela eta batzuek uko egin behar izan diotelako. Baina, atzetik 300 laguneko zerrenda dago eta laster etxe horiek ere adjudikatuko dituztela esan dute. Bilogelakoak dira 56 etxe, eta gainerako biak bakarrekoak. Etxe bat gurgildun aulkian dabilzanezi begira diseinatu dute, eta horrek ere badauka dagoeneko jabea.

Lehenengo, 2010ean, merkatu libreko etxeak egin zituzten Errotarixuenakoan. Orain babese-

**Guztira, 58 etxe dira, eta bakoitzak bere trastelekua eta garajeko plaza edukiko ditu**

koak emango dituzte, eta 2013ko abenduan geratuko da auzoa amaituta, Banco Sabadell egaz batera egiten dabilzaten etxelibreak ematerakoan. Auzoko ingurunea urbanizatuta dago jadanik.

**Adierazi dute hasieran esperotako epea baino lehenago egongo direla prest**

**Lehenengo BOEak**

Durango Udalaren ekimenez egindako lehenengo Babes Ofizialeko Etxeak (BOE) dira Errotarixuenakoak. Aitziber Irigoras alkateak esan du bere egunean hartutako konpromisoa bete dutela horrela: "Egoera ekonomikoa larria bizi badugu ere, udalak lanean jarraituko du durangarrek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten". Gogorarazi du Faus-tegoienan ere babeseko 116 etxe eraikiko dituztela, eta azaldu du azaroaren 30a dela promozioan apuntatzeko azken eguna.

Errotarixuenako babeseko etxeen lokaletan, 720 metro karratuko espazioa edukiko du udalak. Komunikabide batek esan izan du, aldundiak bertan ezindu psikikoentzako eguneko zentroa zabaltzeko asmoa daukala. ■ M.O.



# Kobika jatetxea, Espainiako pintxo txapelketan

Kortabitarte anaiak ezin izan dute garaikurrik ekarri, baina pozik daude esperientziagaz

Beti ezin da irabazi. Durangoko Kobika jatetxeoak ohituta daude sariak jasotzera, baina Espainiako txapelketatik ezin izan dute garaikurrik ekarri. Hori bai, Iñigo eta Koldo Kortabitarte anaiak pozik daude esperientziagaz. Horrelako ekimenek ikasteko ere balio dute: la adierazi du Iñigo Kortabitartek:

**66 jatetxek parte hartu dute; durangarrek Puerrolarium pintxoaren eroin dute**

“Norbera birziklatzeko eta azken joeretan egoteko baliagarriak dira; esaten dudan moduan, loak ez hartzeko”. Hirugarren urtez parte hartu dute lehiaketa horretan.

Valladoliden jokatu da txapelketa asteon, asteleheneetik eguaztena. Estatu osoko 66 jate-

txek parte hartu dute, eta maila altua egon dela dio Iñigok: “Estatuko barra onenak egon dira”. Durangarrek *Puerrolarium* pintxoaren eroin dute bertara. “Gure ideia porrusaldaren errezeta berreskuratzea zen”. Porrusalda eta odolostea, eta tripakiak bizkaitar erara batzen ditu euren pintxoak. Tradizioa daroa, baina diseinu modernoan aurkeztuta. “Proposamena asko gustatu zitzaizkien epaileei, baina ezin izan da sariarik lortu”.

### Bizkaian, bigarren

Espainian baino zorte hobea izan dute etxetik gertu. Azken asteetan txapelketaz txapelketa ibili dira Kobikakoak. Euskadikoan ere finalista izan ziren, eta Bizkaikoan bigarren postuan geratu ziren. Bakailoaren nahaski bat egin zuten. ■ M. Onaindia



Kortabitarte anaiak, Valladoliden, Espainiako txapelketan.

## ABADIÑO

# “Ezer adosteko borontaterik ez dute agertu EAJk eta Bilduk”

Adif-en proiektua bertan behera uztearen arrazoiak azaldu ditu alkateak



Jeltzaleen “jarrera aldaketa” ez duela ulertzen esan du Jose Luis Navarro alkateak.

A gerraldia egin du Jose Luis Navarro alkateak, Atxarteko harrobirako proiektua Udaleko Jasangarritasun batzordean eztabaidatu duten aldi guztietako aktak eta Adifen proiektuaren lau tomoak hartuta. AHTaren hondakinak Atxarte eta Atxa Txikiko harrobietara eroateko proiektua bertan behera uzteko arrazoiak azaldu ditu alkateak.

Atxarteko harrobiak hamaazpi urte daramatza itxita eta alkatearen berbetan, “egoera

negargarrian” dago. Hala, inguru hori konpontzeko “urrezko aukera” lez ikusten du Abadiño-ko Independentiek taldeak Adifen proiektua. Oposizioa kontra duela, baina, ez du egitasmoagaz aurrera egingo. “Proiektuagaz loturiko ezer adosteko borontaterik ez dute agertu EAJk eta Bilduk”, kritikatu du Navarro. Jeltzaleen “jarrera aldaketa” ulertzina dela dio alkateak: “Azken batzordera arte ez dute esan proiektua gogoko ez dutenik”.

“Ingurugiro, gizarte eta ekonomia ikuspegitik, kaltegarria izango da oposizioak Atxarteko harrobien berreskuratze proiektua geldiarazi izana”, dio Navarro: “Ez dugu berreskuratze beste aukerarik izango: udalak ezin du hiru milioiko inbertsioa burutu”.

Gauzak horrela, AHTaren eraikuntzaz sorturiko hondakinak botatzeko hasierako proiektua berrartuko du, Navarrok ustez, Adifek: Mendiolan egin gura zuten hondakindegia. ■ I.E.

## MALLABIA

# Konpostadoreak banatuko dituzte urte bukaeran

Teknikariak abenduan hasiko dira konpostadoreak banatzen eta baita funtzionamendua azaltzen ere

Mallabiko Udalak konpostadoreak banatuko dizkie konposta egin gura duten herritarrei. Egitasmo hori urte bukaeran gauzatuko dute, Debarrenako Amankomunazgoaren bitartez. Vermican enpresari esleitu diote kanpaina

**Erabiltzaileei konpostadoreak banatu eta gero, teknikariak jarraipena egingo diete**

aurrera eroateko ardura. Azaroaren bukaeran informazioa zabalduko dute herritan, konpostadorea eskuratu gura duten herritarren artean. Abenduaren 1etik aurrera banatu gura dituzte auto-konpostadoreak, bakoitzak bere baserri, ortu, lorategi edo lurretan konposta egiteko aukera izan dezan.

Erabiltzaileei konpostadorearen funtzionamendua azaldu ostean, teknikariak jarraipena egingo diete. Telefonoz eta korreo elektronikoz zalantzak argitzeko aukera eskainiko dute. ■ J.G.

**Menuen zozketako IRABAZLEAK:**

Virginio Miñambres  
Iñigo Lopez  
Ander Berasaluce

**ON EGIN!**

**Goiuria auzoa 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia) • Tel.: 94 681 08 86 • [www.asadorgoiuria.com](http://www.asadorgoiuria.com)**

OTXANDIO

'Xentimorik gabe' antzezlan eskainiko dute bihar, Mekoletan

Arkotxe kultur elkarteak antzerki emanaldia eskainiko du bihar, 20:00etan, elkarteak Mekoletan duen egoitzan. Antzezlan *Xentimorik gabe* deitzen da, eta Inazio Tolosa eta Ramon Barea aktore ezagunek sortu eta antzezten dute. Antzezlenerako sarrera doakoa da. Osteko afarirako, aldiz, aurrez erositako txartela behar da. Guztira 45 bat lagun batuko dira afaritan.

*Xentimorik gabe* lanean, Agirre eta Tolosa herrialdez herrialde ibili diren musikarien azalean sartuko dira: Ray eta Nick. Bi hamarkada lehenago amaigabe-ko birari ekin zioten munduan zehar: Frantzia, Amerika, Errusia, Kamerun... Aurten ordea, herrimina igarri dute, eta Honorio doktoreak txerxa lehenbailehen itzulzea gomendatu die.

Mekoletako jaietatik kanpo, biharkoa da elkarteak antzezlana bat antolatzen duen lehenengo aldia. Urtean zehar auzotarrentzako hainbat ekimen prestatzen ditu Arkotxek. ■ J. D.

**Antzezlenerako sarrera doakoa da; osteko afarirako aurrez erositako txartela behar da**

Nagusien eguna ospatuko dute etzi eskolako gimnasioan

Domekan nagusien eguna ospatuko dute Otxandion. Urtero legez, Mainondo eskolako gimnasioan batuko dira bazkaltzeko. Jakinarazi dutenez, 137 jubilatuk eman dute izena bazkari-tarako. Beste herri batzuetako jubilatuen elkarte ordezkariek ere etorriko dira, Mañarikoak besteak beste, harreman ona dute-eta. Honezker, 30 urtetik gora daramatzate urtero-urtero bazkari hori antolatzen.

Bazkalostean Otxandioko jubilatuen elkarteak antolatu duen karta txapelketetako sariak ere banatuko dituzte eskolako gimnasioan bertan.

Otxandioko Udala eta Pasealeku jubilatuen elkartea dira nagusien eguneko ekitaldien antolatzaileak. ■ J. D.

**Jakinarazi dutenez, guztira 137 jubilatuk eman dute izena bazkari-tarako**

**Bazkalostean karta txapelketetako sari banaketa egingo dute**

ELORRIO

EAJ eta Bildu aurrekontuak lantzen, bakoitza bere aldetik

2013an 400.000 euro gutxiago edukiko dituzte aurrekontuetarako



Bilduko eta EAJko zinegotziak, udalaren eraketa egunean. Juanra de La Cruz

**G**obernu taldea hasi da 2013rako udal aurrekontuak lantzen. Datorren urtean 400.000 euro gutxiago edukiko dituzte, Udal Kutzari-Aldundia-arena da- udalek dirua bueltatu behar diote-eta. Ana Otadui alkatearen berbetan: "Atzeraldi ekonomikoan sartuta gaude, eta aurrekontuak bizi dugun egoeraren arabera izango dira". Edozelan ere, gastu soziala manten-

du gura dute. Gazteei alokairua ordaintzen laguntzea eta alargunei Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ) hobariak ematea ipini dituzte adibide. Inbertsio gaitasunari ere eutsi gura diote.

**Bildu, batzarrak hastera**  
Bere aldetik, Bilduk *Egin dezagun Elorrio* parte-hartze prozesua hasiko du hilaren 15ean. Idoia Buruagaz zinegotziak aurkeztu du: "Batzar-

labur, grafiko eta ulerterrazak izango dira". Hilaren 15ean Aldapebeitia txikian izango da, 19:00etan; 17an Argiñetako elkarteak, 12:00etan; 21ean Aittu akademian, 19:30ean; 22an Miotako elkarteak, 19:00etan; 28an Ortuburu elkarteak, 19:00etan; 29an Gazetako elkarteak, 19:00etan; eta abenduaren 4an Arriolan, 19:00etan. Bestalde, inkestak ere banatuko dituzte etxeetan. ■ M. Onaindia

# Gabonak Parisen

## ABENDUAK

### 27 28 29 30 31 1

# 550 €

\* Logela bikoitzean oinarritutako prezioa pertsonako. Indibidualetarako edo umeentzako aukerak kontsultatu.

**bagoaz**

www.bagoaz.com

20 pertsonako taldea sortzea beharrezkoa da

Apuntatzeko azken eguna: **azaroak 19**

- 27 Irteera**  
Autobusa Durangaldetik
- Amboise**  
- Amboiseko gaztelua  
- Gaua gosariarekin
- 28 Parisera heldu**  
- Hotelera heldu  
- Bisita gidatua, arratsaldean
- 29 Irteera aukeran**  
- Versalleseko jauregira bisita
- 30 Irteera aukeran**  
- Senatik bidaia  
- Eiffel dorrea
- 31 Irteera aukeran**  
- Disneyra egunez
- 1 Itzulera**  
Gosalduta eta herrira bueltan itzuli

**PREZIOAN BARNE:**

- Autobusa
- Gaua eta gosaria Amboisen
- Amboiseko gaztelura bisita (Leonardo da Vinciren hilobia)
- Parisen 4 gau eta gosaria
- 3 izarretako hotelean
- City tourra edo bisita gidatua
- Oinarritzko asistentzia aseguru

Trañabarren 11, behea • Matiena (Abadiño) • Tel.: 94 465 75 77 • Mug.: 639 346 506 • info@bagoaz.com



Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior

# Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balloesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozaten jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



[www.benetakoazgozatu.com](http://www.benetakoazgozatu.com)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
INGURUMEN, LERRIALDE  
PLANIFICAZIÓ, MERKATUTZA  
ETA ABANTZUA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA.

# hazi

Landa eta itsas ingurunearen  
garapenerako Eusko  
Jaurlaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno  
Vasco para el desarrollo  
del medio rural y marino

MAÑARIA

# Herritarren 50 ekarpen jaso dituzte aurrekontuak osatzeko

Endika Jaio: "Lehenengo aldia izateko, kopuruagaz oso konforme gaude"



Inbertsioetako 20.000 euro gorde dituzte herritarren parte-hartzeagaz bideratzeko.

Udal aurrekontuak egiteko filosofia parte-hartzailea ipini dute martxan Mañarian. Aurrekontu osoaren atal bat herritarren iritziagaz osatzea erabaki dute, eta batu berri dituzte proposamenak. Endika Jaio alkateak (Bildu) azaldu du 50 ekarpen inguru aurkeztu dituztela herritarrek: "Lehenengo aldia izateko, kopuruagaz oso konforme gaude". Lehe-

naz. Bere ustez, jendea ez dago ohituta aurrekontuetaz berba egitera, baina behin etorri direnean, gustura egon ei dira. "Jendea irakutsi gura genion badagoela aurrekontuak egiteko beste era bat". Aurten hasi direnez eta esperimentu legez hartu dutenez, ez dute aurrekontu osoa parte-hartzeagaz diseinatu; inbertsioetako 20.000 euro gorde dituzte egitasmo honetarako. "Demokrazia zuzenerako pauso bat da".

## Duela aste bi, hamasei lagun hurreratu ziren udaletxean eginiko batzarretara

nengo etxerik etxe joan ziren ekimena aurkeztera, eta hoguei lagunekin berba egin zuten. Duela aste bi, hamasei lagun hurreratu ziren udaletxean eginiko batzarretara. Hartu-emon horien guztien ondorio dira jasotako iritziak. Jaioren arabera, proposamenak denetari-koak izan dira: hirigintzakoak, kulturakoak...

Jaiok esan du oraingoz balorazio positiboa egin dutela ekime-

## Lan-taldea sortuko dute

Hurrengo egunetan prozesuan parte hartu duten herritar batzuekin lan-talde bat sortuko dute. Zinegotzi eta teknikariekin batera, ekarpenak landu eta lehentasunak zehaztuko dituzte. Horretarako, hiru faktore kontuan hartuta aztertuko dute ideia bakoitza: izaera soziala, urgentzia eta zenbat jenderi eragingo dion. Onartzen dena udalbatzarretik pasako dute. Jaiok adierazi du, onartu edo ez, herritarrei erantzun dietela: "Banan-banan erantzuteko asmoa daukagu". ■ Markel Onaindia

IZURTZA

# Nagusientzako ekintzak prestatzen hasi dira eguen arratsaldetan

Orain arteko saio bietan barreterapia eta memoria lantzeko ariketak egin dituzte

Jubilatuena elkarteko egoitzan nagusiei begirako ekintzak antolatzen hasi dira eguen arratsaldetan, 17:30etik aurrera. Herrian jubilatuei begirako eskaintza zabaltzea da helburua. Herritar batek proposatu ondoren, udalagaz batera aurrera eramandako ekimena da.

Orain hiru eguen izan zuten lehenengo saioa. Orduan barreterapia ariketak egin zituzten, ekimenari umore onagaz ekiteko. Joan zen astean memoria landu zuten jolasen bidez eta atzo feltrozko eskulanak egiten jardun zuten.

Orain arteko saioetara hamar bat lagun batu dira eta oso gustura dabiltzala adierazi du Maialen Sarasua zinegotziak. Jende gaztea

ere hurreratu izan da aurreko saioetara. Sarasuaren esanetan, "nagusiei zuzendutako ekimena bada ere, edonor etor daiteke bertara; zenbat eta gehiago batu giro hobea egoten da, eta hartu-emonak sendotzeko modua ere izan daiteke". ■ J.D.

**Orain arteko saioetara hamar bat lagun batu dira; jende gaztea ere hurreratu izan da**

**"Edonor etor daiteke ekimenetara; hartu-emonak sustatzeko modua ere bada"**

BERRIZ

# Bihar aterako dute lehenengo konposta

Auzolanean galbahetu eta poltsetan sartuko dute

Berriziklatu egitasmoa hasi eta sei hilabetera, ateratzeko prest dago lehen konposta. Erabiltzaileak auzolanean ibiliko dira bihar konposta galbahetu, poltsatxotan sartu eta etiketatzen. Ondoren, gura dutenek ongarria eskuratu ahal izango dute, euren etxeko landare eta loreak hobetzeko.

Konpostaje planta ipinizute netik hamabost tona hondakin batu dituzte. Berriziklatu proiektuko lehen fase honetan 60 familiak eta bost merkatarik parte hartu dute. Laster erabiltzaileek proposatutako hobekuntzekin familia gehiagorengana zabalduko dute egitasmoa. ■ A. U.



Hamabost tona inguru batu dituzte konpostaje plantan.

GARAI

# Zergak eta tasak % 2,5 igotzea onartu du udalak

2013rako ordenantza fiskalak zeintzuk igotzeko diren erabaki zuten eguzteneko udalbatzarrean. Orokorrean, zergak eta tasak % 2,5 igotzea onartu zuten, baina ez aho batez. EAJK ez zuen babestu Herriko Taldeak aurkeztutako proposamena. Jeltzaileek zergak izoztea gura zuten; krisi sasoiaren ondorioz igotzeko onartzen. Herriko Taldeak uste du, hobe dela apurka-apurka igotzea. "Aurten igo ezean, datorren urtean behar bada % 4 igo beharko genuke".

Ibilgailuen gaineko zerga, ur hornidurarena, zaborrarena, estolderiarena eta potzu beltzen garbiketarena igotzeko dira. Bestalde, frontoiaren erabilera ordaintzeko kopuruak zehaztu dituzte. Erroldatuek zortzi euro ordainduko dituzte orduko, eta ez erroldatuek hamabi. ■ M. O.

## Durangaldeko Baserritarren Elkartea





Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA

## URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

katerin ardoak

iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com



**DURANGALDEA**

# “Europari esango diogu ezin dela bide honetatik joan”

Eguaztenerako greba orokorra deitu dute UGT, CCOO, CNT, CGT eta LSBk



Azaroaren 14an greba egitera deitu dute UGT eta CCOO sindikatuek.

Azaroaren 14rako mobilizazio eguna antolatu du Europako sindikatuen konfederazioak. Greba orokorra deitu dute UGTk eta CCOOk, eta erkidegoan ESK, CNT, CGT eta LSB batu dira. Durangaldeko UGTko Mauricio Garciak eta CCOOk Roberto Martinek murrizketen politikak kritikatu dituzte. Garciaren esanetan: “Europari esango diogu ezin dela bide honetatik joan”.

**Ekitaldia egin du gaur goizean UGTk; CCOOk etzi egingo du, Ezkurdin, 12:30ean**

Garciak esan du 40 urteko lanari urtebetean eman diola buelta Raxoik. Martinek dio, langabezia tasak eta datu ekonomikoek erakusten dutela egoerak ez dela hobera egin.

ELAk eta LABek ez dute bat egin deialdiagaz. ELA Europako konfederazioan dago, eta Garciak eta Martinek ez dute ulertzen han onartutakoa hemen ez babestea. Martin: “Sindikatu guztiak bat egin ahalegindu beharko genuke, batzen gaituenetik lan egingez”. Grebaren aurrelanketarako ekitaldia egin du gaur goizean UGTk, eta CCOOk etzi egingo du, Ezkurdin, 12:30ean. ■ M.Onaindia

**IURRETA**

# A8aren Gerediagarako bide zatia eztabaidagai

A8aren lurreta-Gerediaga zatia doan izateko Bilduren eskariak ez du aurrera egin

A8 autobidearen lurreta-Gerediaga errepide tartea guztientzat doan izatea eskatu zuen Bilduk mozio bidez, baina ez du aurrera egin. Bilduk dio soluziorik ez dela eman errepide horrek, N-634an ez dela trafikoa gutxitu. “Lau kilometro horiek egiten dituztenentzat bakarrik ez, guztientzat izan beharko luke doan”. Kontra egin dute EAJk eta PPK; PSE-EE absentidu egin da.

**Bilduk dio soluziorik ez duela eman, N-634an ez dela trafikoa gutxitu**

PPk dio auzi hori Bizkaiko Diputazioaren eskuduntza dela. EAJk ere bai. Jeltzaleek jasanga rritasun irizpideetan oinarritutako deskontu eta laguntzak hobetzearen alde egin dute. Eskariari “kutsu populista” hartu, eta bide horren funtzioa baloratzeko goiz dela diote: “N-634an abiadura murrizteko neurriak jartzea da gure helburu nagusia, horrela trafikoa A8ra bideratzeko”. Abiadura murrizteko neurriekin ados dago Bildu: “Aldundiaren eskuduntza da hori ere; dena dela, neurri diskriminatzaile bat konpondu gura dugu”. PSE-EEK uste du informazioa falta dela. ■ A.B.

# Jolasparkeko lauzak aldatuko dituzte Maiztegin

Maiztegi herri eskolako baldosa itxurako zoladura motelgailua aldatuko du Iurretako Udalak, egoera txarrean dago eta. Horretarako ia 14.000 euroko inbertsioa egingo dute, Iñaki Totorika-

guena alkateak ohar baten bitartez jakin eragin duenez.

Totorikaguenak nabarmendu duenez, herrian ikastetxe “erakargarri, lehiakor eta moderno” bat izatea dute helburu eta bide horretan dihardute inbertitzen Maiztegi ikastetxean. Udal arduradunek zehaztu dutenaren arabera, 40 milimetroko 192,5 metro koadroko zoladura motelgailua jarriko dute. ■ A. B.

# III. Kuttun Ipuin lehiaketa



## “DENDAK ZABALIK HERRIA BIZIRIK”



### Mailak

6 urtetik 8 urtera - 9 urtetik 11 urtera - 12 urtetik 14 urtera.  
Aurkezteko epea: azaroaren 12an hasiko da eta abenduaren 3an bukatu.

### Oinarriak

Ipuinen gehieneko luzera 3 orrialdekoa izango da, eskuz idatzita eta gaiak leloarekin zerikusia eduki beharko du.

Ipuinak izenik gabe aurkeztuko dira eta gutun-azal batean izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa jarriko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak erregalutxo bat lortuko du eta maila bakoitzeko sari bat izango da. Sariak abenduaren 26an emango dira jakitera Arriola-Ateneo aretoan, arratsaldeko 17:00etan.

### Ipuinak aurkezteko lekuak:

GARBIÑE - DITARE - SAGASTIZABAL  
INES MODA - ZAINDU ALBAITARITZA

## Durangaldean labor

### Herriko ahozko ondarea jasoko dute Abadiñon

Edadeko hamabost abadiñarrei elkarrizketak egingo dizkiete Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren barruan. Udalak hitzarmena sinatu du proiektua daroan Badihardugu elkarteagaz, ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko. "Jende nagusiari entzunda gure historiaren zati bat jasotzen ari gara, eta Abadiñoko euskararen ahozko ezaugarrien ezagutza aberasten", nabarmendu du Argi Abad zinegotziak.

### Azaroaren 25aren harira, adierazpen instituzionala

Azaroaren 25a Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta, Durangoko Udalak adierazpen instituzionala onartu du aho batez. Martitzeneko udalbatzaren irakurri zuten adierazpen hori. Besteak beste, eguenero, 20:00etan, Plataforma Feministak Andra Mariko atarian egiten duen konzentrazioa joateko deia egin zuten.

### Etorkinei buruzko diskurtsoak aztergai

Azaroaren 19an *Atzerriko inmigrazioari buruzko diskurtsoaren analisia* tailerra eskainiko du Xabier Aierdi soziologoak, Berrizen. Etorkinei buruzko aurreiritzien gaineko hausnarketa egingo dute. Gaian interesa duten elkarte, profesional eta erakundeek zuzendutako saioa izango da.

### Mendizale baten erreskatea Alluitzen

Eguaztenean mendizale bat jausi egin zen Alluitz eta Larrano arteko mendi-lepoan. SOS-Deiak-era egingo dako deiari erantzunez, Ertzaintzaren errekaste taldeko helikopteroa bertaratu eta mendizalea erreskatatu zuen. Hainbat traumatismogaz, Galdakaoko ospitalera eroan zuten.

## ZALDIBAR

# Hamar elkarrizketatik bitan euskara darabilte zaldibartarrek

Gazteak dira kalean euskara gehien egiten dutenak: % 28k erabiltzen du

Joa zen martitzenean aurkeztu zituzten Soziolinguistika Klusterrak 2011n burutu duen euskararen kaleko erabilierari buruzko ikerketaren emaitzak.

Zaldibartarren kaleko elkarrizketetatik zenbat diren euskaraz, haurren presentziak helduen hizkuntza ohituretan eragiten duen... Horien antzeko galderak erantzuteko batu ditu Soziolinguistika Klusterrak datuak, eta udalean eskuartean dauzkate dagoeneko emaitzak.

Kaleko hamar elkarrizketatik bi euskaraz dira, Zaldibarren: dakitenen (%48,9k) erdiak erabiltzen du euskara: % 21,7k.

Gazteen eta umeen arteko elkarrizketetan batu dituzte datu-rik adierazgarrienak: gazteen arteko elkarrizketen % 28 da euska-

raz. Arantza Baigorri alkateak ere azpimarratu du, "orain lau urte bezala, gazteak dira Zaldibarren euskara gehien hitz egiten dutenak". Orain lau urte euskararen kaleko erabilieraren azterketa egin zuten, eta datuak erakusten dutenaren arabera, orduan umeak zirenetariko askok, euren artean euskaraz egiteko hautua egin dute gaztaroan. Izan ere, duela lau urte egin zuten azterketak erakutsi zuenez, oso ume gutxi egiten zuten euskaraz. 2011n egindako azterketaren arabera, ume horietariko batzuek euren hizkuntza ohiturak aldatu dituzte, eta euskara aukeratu. "Oso pozgarria da hori", Baigorriren berbetan.

### Datu kezkgarria

Umeen arteko erabilierena da beste datu oso deigarri bat. Negatiboa, baina, kasu honetan: ume oso gutxi egiten dute euren artean euskaraz (umeen arteko elkarrizketen % 9,6 da euskaraz).

Eskolako guraso elkartearen ere kezkgarritzat jo dute datu hori, eta umeek euren artean euskaraz egin dezaten zer egin daitekeen pentsatzen hasi dira.

Euskara Biziberritzeko Plan berria diseinatzeko prozesua abia-

tu dute Zaldibarren, eta euskararen normalizazioan datozen urteetan egin beharreko lana finkatzeko baliagarria izango da Soziolinguistika Klusterraren azterketa hau. ■ I.Esteban

## EUSKARAREN ERABILERA

% 48,9k daki euskaraz  
% 21,7k erabiltzen du

### Erabilera adin taldeen arabera


- Umeen % 23,6k
- Gazteen % 28,3k
- Helduen % 20,6k
- Adinekoen % 18,4k

### Sexuaren arabera

- Emakumeen % 23,6k
- Gizonezkoen % 19,2k

### Haurren presentziaren eragina

- Haurren artean % 9,6k
- Haurrak mintzakide % 30,3k
- Haurrik ez badago % 18k



Oso ume gutxi egiten dute euskaraz euren artean.

**A.Baigorri: "Orain lau urte bezala, gazteak dira euskara gehien hitz egiten dutenak"**

**Kaleko 10 elkarrizketetatik bi euskaraz dira, Zaldibarren: dakitenen erdiak erabiltzen du**

## ATXONDO

# Maurtua presoari laguntzeko pilota partiduak antolatu dituzte

Urtebeterako egunkaria ordaindu gura diote batzen duten diruagaz

Aitzol Maurtua presoari urtebeterako egunkaria ordaintzeko adina diru batu gura du Herrira Mugimenduak azaroaren 16an antolatuko dituzten pilota partiduekin. Orain arte bertso afariak-eta antolatu izan dituzte, baina aurten ekimen berri batekin probatzea erabaki dute.

Pilota partiduak azaroaren 16an, 20:00etan, hasiko dira. Binakako pilota partidu bi prestatu dituzte herriko jende ezagunekin. Atarikoan, Txutxu eta Porron, Urresti eta Belokiren aurka ibili-

**Partiduen ostean, herri afaria dute; txartelak salgai daude herriko tabernetan 12 euroan**

**Aitzol Maurtua Huelvako kartzelan dago; guztira 22 urteko kondena du eta 10 urte daramatza preso**

ko dira. Partidu nagusian, berriz, Karkun I.ak eta Alemanak, Karkun II.aren eta Oke II.aren aurka jokatuko dute. Beraz, Karkun osabailobak aurreko koadroetan nor baino norrago ikusteko aukera egongo da. Sarrera doakoa da eta kinielen bidez aterako dute dirua. Ondoren, herri afaria egingo dute Goi de Goi elkartearen. Afaritarako txartelak herriko tabernetan erosi ahal dira 12 euroan.

Aitzol Maurtua Huelvako kartzelan dago. 22 urteko kondena du eta 10 urte daramatza preso. ■ J.D.

# San Martinak ospatuko dituzte Apata eta Martzaan

Domekan meza eta luntxa egongo dira Martzaan; Apatan ume jolasak egingo dituzte

Domekan San Martin jaiak ospatuko dituzte Apatan eta Martzaan auzoan. Ohiturari eutsiz, Martzaan meza emango dute 11:30ean eta ondoren luntxa egongo da bertaraten diren auzotar guztientzat. Datorren barikuan, berriz, Martzaako jai batzordeak


**Marixurriek umeentzako jolasak egingo ditu; ondoren txistorra banatuko dute**

bazkaria ordainduko die herriko jubilatuak. Oraindik erabaki barik dute non, baina Atxondoko jate-txe batean izango da.

**Marixurrike eta jolasak**  
Apatan 17:30ean hasiko dira On Martin eguna ospatzen, herriko pilotalekuan. Lehenengo Marixurrike aisialdi taldeak umeentzako hainbat jolas egingo ditu. Jolasak amaitzen direnean, 19:00ak inguruan, udalak txistorra banatuko du frontoian batzen diren herritarren artean. ■ J.D.



# 47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



*ME STOR bast erretxea*

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

## BERBAZ &gt;

**“Kooperatibena formula ona da beste mota bateko enpresei buelta emateko”**

Konfekoop kooperatiben konfederazioak domekarako Kooperatiben Jaia antolatu du Durangon, Landako Gunean

**I**a mila kooperatiba batzen ditu Konfekoop konfederazioak. Krisi egoera honetan Nazioarteko Kooperatiben Urtea ospatzen ari dira. Jardunaldi, mintegi eta hainbat ekitaldiren artean Durangon Kooperatiben Jaia antolatu dute domeka honetarako. Javier Goienetxea konfederazioko presidentea kooperatiben egungo egoera baloratu du.

**Zenbat kooperatibek osatzen dute konfederazioa?**

Orain bertan 900 baino gehiagok. 2012an ehun kooperatiba berri baino gehiago batuko dira, eta gure errekorra gaituzteko dugu.

**Aurten Nazioarteko Kooperatiben Urtea dela eta hainbat mintegi eta topaketa antolatu dituzue. Zer landu da bertan?**

Gai ezberdin mordo bat, ez bakarrik Euskal Herrian, mundu osoan baizik. Kongresuak izan dira, erakusketak... Gure inguruan, batzuk aipatzearren, TESS Gizarte Ekonomiaren jardunaldia egin genuen Donostian, Gizarte Ekonomiaren Ikerlarien XIV. Jardunaldi Nazionalak Donostian bertan eta Oñatin, Kooperatiben 90. Nazioarteko Eguna ere ospatu genuen, eta orain festa erraldoia daukagu begi-bistan, Durangon.

**Oso sektore desberdinetako kooperatibak daude; kontsumoa, nekazaritza, kreditu kooperatibak, irakaskuntza... Sektoreetako zein dago indartsuen?**

Krisi egoera denean sumatzen dugu, kontsumo arloan gehienbat. Kreditu eremuan Ipar Kutxa eta Lan Kide Aurrezki entitate bakarria bihurtu dira, eta indartsu daude etorriko diren erronkei aurre egiteko. Irakaskuntzari dagokionez, mehatxu handiena, beharbada, Madriletik datorren lege berria da, eta nekazaritza mundua aspaldi dabil estu-estuan aurrera egiten, baina aspaldiko kontua da hau.

**Sektore horietan guztietan igarri dute gure egungo krisi ekonomikoa. Zelan bizi dute kooperatibek krisia?**

Abantaila handia daukagu kooperatibok; gai gara gure barne erabakiak hartzeko. Ez dugu itxaron behar baten bat kanpotik zer egin esaten etorri arte. Erabaki asko hartu dira, kasuan kasu, bakoitzaren hileko irabazia egokitzeke, lan orduak banatzeko... Gure kasuan pertsonak diru etekinen gainetik daude, eta nahiz eta salmentak murriztu, orduak eta lanpostuak mantentzen saiatzen gara.

**Euskal Herriko egitasmoak nazioartean erreferente izan direla aipatu dasarritan... Pauline Green-i, Nazioarteko Kooperati-**



**“Gure kasuan pertsonak diru etekinen gainetik daude; nahiz eta salmentak murriztu, orduak eta lanpostuak mantentzen saiatzen gara”**

ben Erakundeko presidenteari entzun diot munduan hiru erreferente erabiltzen kooperatiben inguruan: Txinako nekazaritza arlokoak, Herbereetako bankuena, eta Mondragon Korporazioa. Berezitasun bat daukagu gainera; hemen kooperatiba asko industria sektorekoak dira eta lan bazkideak dituzte.

**Sortzen ari diren enpresa berrietan kooperatibako formula hartzeko joera dago?**

Eustaten datuak hartzen baditugu, kooperatibak gara gaur egun enpresa kopuruan eta enpleguan hazten ari garen enpresa eredu bakarra. Bilbon Elkar-Lan daukagu, eta bertan kooperatibak sor-

tzen laguntzen dute. Bi pertsona eta proiektu baten ideia edukiz gero, bertara jotzea da onena, prest daudelako behar den laguntza emateko. Gainera, kooperatibena formula ona da beste mota bateko enpresei buelta eman eta lanean jarraitzeko.

**Globalizazioa dela eta, enpresen nazioartekotzean kooperatiben esentzia mantentzen al da?**

Bi arlo desberdinduko nituzke. Bata jabetzarena da, eta arlo horretan asko daukagu oraindik aurreratzeko eta egiteko. Bestea, funtsezko izaerari dagokio. Gure izaera eta parte-hartzea zabaldu

**Javier Goienetxea •**

▪ Konfekoop Kooperatiben konfederazioko presidentea

**“Lanbiden ez daukagu ordezkariarik, enplegu eta hezkuntza gaiez gauza asko esateko daukagun arren”**

nahi diegu langile guztiei, erabakiak era demokratikoan hartzeko filosofia hori. Gauza bat bai ikasi dugu, zenbat eta nazioarteko ekoizpen handiagoa eduki, orduan eta lanpostu gehiago sortzen dira hemen bertan, nahiz eta hasieran pixka bat harrigarria iruditu.

**Zeintzuk dira, zure ustez, kooperatibismoaren erronka nagusiak momentu honetan?**

Gure lan ereduak beste sektore batzuetara zabaldu gura ditugu, lanpostuak sortu –kooperatiboak, ahal bada– eta gizarteari gure ezaugarriak eta egitasmoak azaldu gura dizkiogu. Enpresen lehiakortasuna eta hazkunde ekonomikoa bermatu beharko ditugu, eta lege berriak egiterakoan, erronka azpimarragarria da gure errealitatea kontuan hartzea.

**Hutsunea igarri duzue lege berriak egiterakoan?**

Bai, adibidez asko borrokatu dugu onartzeko langile berriak bazkide izatea errelebo kontratuan, lehenago kontratatua izatea bakarrik onartzen zen. Gainera, momentuz ez daukagu ordezkariarik Lanbiden, enplegu eta hezkuntza gaiez gauza asko esateko daukagun arren.

**Zer mezu transmititu gura izango zenuke domekako Kooperatiben Jaian?**

Egun polita egiten saiatuko gara, ondo pasatzeko aukera ederra edukiko dugu. Gure proiektua kolektiboa da eta zenbat eta lagun gehiago batu, orduan eta gehiago izango gara. Denok elkarrekin gogoratzeko egun polit bat pasatuko dugu. ■ A.Ugalde

@anbotokultura

# KULTURA

ANTZERKIA > JARDUNALDIA

## Antzezlanak, solasaldia eta jaia Bizkaiko antzerkiaren bilgunean

Abadiñon egingo dute aurten, Bizkaiko Antzerki Hamabostaldia. Bihar hasi eta jai batekin amaituko da



**A**mares Arte Eszenikoen lagunaren elkarteak antolatatu du, Bizkaiko Antzerki Hamabostaldiaren hirugarren edizioa. Abadiñon izango dira, aurten, jaialdiko ekimenak.

Bihar hasiko da hamabostaldia, eta hainbat ekitaldi izango dira azaroaren 25era arte.

Hasteko, *Abuelita de Batman* eskainiko du Banarte herriko antzerki taldeak, bihar, Errotan.

Arte eszenikoak umeei gerturatzeko antolatu dute antzerki festa

Hain zuzen, talde horren proposamena izan zen hamabostaldia Abadiñon egitea. Sorkuntza fabrikei buruzko solasaldia gidatuko du, bestalde, azaroaren 22an, Rafa Herce Banarteko kideak.

### EGITARAUA

Azaroaren 10ean, 20:00etan  
*Abuelita de Batman*, Errotan

Azaroaren 17an, 20:00etan  
*La puerta estrecha*, Errotan

Azaroaren 18an, 18:00etan  
*Sutondoan*, Errotan

Azaroaren 22an, 19:00etan  
*Fabricas de creación-Innkultura, nuevas formas de trabajar en la cultura*, Errotan

Azaroaren 25ean, 11:30etik 14:30era  
Antzerki festa, Zelaietako probalekuan

Beste ikuskizun batzuk ere izango dira Abadiñoko hamabostaldian. Esaterako, Pintoko (Madril) antzerki tailerrak *Lapuerta estrecha* eskainiko du helduentzat, eta Bilboko A Teatral konpainiak *Sutondoan* umeentzat.

Antzerki jai batekin emango dute jaialdia amaitutzat. Zelaietako probalekuan egingo dute jai hori. Umeei zuzenduriko proposamena da antzerki jaia, eta arte eszenikoak 8-12 urte bitarteko umeei gerturatzeko antolatu dute. Tailer hau hamabostaldiko "harri bitxia" da antolatzaileen berbetan.

Errota kultur etxean eskaini zuen Banartek *Abuelita de Batman* lehenengoz, duela urte eta erdi. Bizkaiko Antzerki Hamabostaldia zabalduko du *Abuelita de Batman*-ek, bihar. ■ I.E.

## "Jendeari sorkuntza fabriken eredua erakutsi gura diogu solasaldian"

Banarte taldeko kidea eta aktorea da Rafa Herce. Azaroaren 22ko solasaldia gidatuko du



**Zelan pentsatu duzu azaroaren 22ko solasaldia planteatzea?**

Kulturari buruzko ideia berriak Durangaldera ekartzeko asmoz antolatu dugu solasaldia. Interesantea da kulturaren inguruko gogoeta eta mugimendua Durangaldean ere sustatzea. Jendeari sorkuntza fabriken eredua erakutsi gura diogu solasaldian: autogestioaren bidetik beste leku batzuetan izan dituzten esperientziak. Kulturak herrikoia izan behar du, gure ustez. Gernikako Astra da horren adibide: erabilerarik ez daukan eraikin industrial bat hainbat arte adierazpen sortzeko gune bilakatu dute. Artista hasiberriak, profesionalak... denak elkartzen dira espazio horretan.

**Posible al da Astra bezalako leku bat sortzea Durangaldean?**

Falta badaukagu, eta erraztasunak ere bai. Erabilpenik bako hainbat

fabrika dauzkagu, eta oso aberasgarria litzateke horrelako espazioen bat edukitzea. Egitura tradizionala berreskuratzea dakarte leku horiek: udaletako kultur programatzaileek gidaturikoa barik, herritik sortutakoa izatea kultura.

**Azkenaldian lanez lepo zabiltzate Banartekideok.**

Bai, biharko emanaldia prestatzen dihardugu, batetik. Diziplina askoko antzerki ikastaroa eta antzerki tailerra ere ipini ditugu martxan. Bakarriketen saioa daukagu, Gernikan, gaur... Oso lanpetuta gabilta, bai... Hasiberrientzako tailerra bosgarren aldiz antolatu dugu, eta hirugarren urtea da diziplina askoko ikastaroa egiten diharduguna. Sardo Irisarri da aurten, ikastaro horren gidaria.

**Antzezlan berriren bat prestatzen zabiltzate Banarten?**

Bai. Gertaera historiko batean oinarrituriko antzezlan prestatzen dihardugu. Gernika Zaharra taldeak industrializazioari buruz egindako lan bat oinarri hartuta, Gernikako industrializazio hasieran zer gertatu zen kontatu gura dugu.

**Zer gertatu zen?**

Eibarko Astra enpresa langile eta guzti lekualdatu zuten Gernikara, eta talka kultural inportantea gertatu zen. Nekazaritza inguru zen Gernika, tradizionalista, eta langile mugimendutik zetozen eibartarrak. Greba egin zuten langileek, eta azkenean, enpresa berriro Eibarrera bueltatu zen. Udaberrian estreinatu gura dugu lan berri hori.

**Genero berritzailea da zuentzat?**

Desberdina da, bai. Jendeari gehien gustatzen zaion antzerkia komedia da: jendea barre egitera joaten da antzokietara, hori da "salgarria". Hau ez da komedia bat izango, ezta tragedia ere, baina galdutzat jo ditugun ideia eta balioak zabaldu gura ditugu: langile mugimenduenak. Oso antzezlan naturalista da.

"Gertaera historiko batean oinarrituriko antzezlan prestatzen dihardugu"

ANTZERKIA >

# 'Publikoari gorroto' erakusteko hiru emanaldi Durangaldean

Asteburuan, Zornotzan, Elorrion eta Durangon eskainiko dute Ander Lipusen azken lana



Aktore baten rolean dihardu Ander Lipusek lan berri honetan.

Durangaldeko hiru herritan eskainiko du Huts Teatro taldeak *Publikoari gorroto* ekoizpen berria, aste-buru honetan. Azaroaren 1ean Luhuson aurkeztu zuten lana, eta gaur, bihar eta etzi, Zornotzan, Elorrion eta Durangon izango dugu. Xabier Mendigurenek 1985ean idatzi zuen antzezlanean oinarrituriko lana da *Publikoari gorroto*. Elkarrekin dihardute

Ander Lipus aktoreak eta Manex Fuchs zuzendariak *Publikoari gorroto*-n, duela bi urte estreinatutako *Errautsak* lanean bezala. "Aktorea eta zuzendaria, pertsona eta pertsonaia" dira, fitxan azaltzen dutenez, obra berriaren ardatzak, eta "norberak bere bizia eszenifikatzeko egiten duen indarrari" buruzkoa da. Antzerkiari buruzko lana baino, ekintza teatra-

la dela diote egileek, eta "krudela zer den ikus eta entzun" dezagun nahi dutela. "Euskal antzerki garaiakidea poltsiko zulatuekin dabil, eta publikoa gose da", diote Huts Teatrokoek. Xabier Mendigurenen "testuaren haragia gordin zerbitzea" erabaki dute, horregatik. Iñaki Ziarrusta eta Miren Tirapu aktoreek jardungo dute Ander Lipuseguz antzezlanean. ■ I.E.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

## 'Abarkas', Amuriza, Elortza, Ugartetxea eta Lazkano, finalaurrekoetan

Durangaldeko bost horiek eta Bizkaiko beste hamahiru bertsolarik jardungo dute txapelketaren finalaurrekoetan


Domekan, Zornotzako Zelaieta zentroan jokatu zuten Bizkaiko Bertsolari txapelketako azken kanporaketa saioa, eta finalaurrekoetan ariko diren bertsolarien zerrenda osatua dago. Guztira, hemezortzi bertsolarik jardungo dute, txapelketaren datozen asteetako saioetan: 2010ean finalista izandakoek, kanporaketan irabazle izan direnek, eta txapelketako saioetan puntuazio altuena lortu duten bostek. Finalaurrekoetan kantatzeko txartela eskuratu dute Durangaldeko bost bertsolarik ere. Duela bi urteko txapelketan finalista izan ziren Miren Amuriza berriztarra, Beñat Ugartetxea mallabiarra eta

Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarra, eta zuzenean sartu ziren aurtengo finalaurrekoetan; bestalde, Sopolako kanporaketa saioan lehengo egin zuen Igor Elortza durangarrak, eta aurrera egitea lortu du Gorka Lazkanok ere.

Hemezortzi bertsolarik jardungo dute datozen asteetako hiru saioetan

Abenduaren 15eko Bilboko finalaren aurretik, hiru finalaurreko saio egingo dituzte. Azaroaren 18ko saioan, Basaurin kantatuko dute Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek eta Gorka Lazkanok. Durangoko Landako erakustazokan jardungo du azaroaren 25ean Igor Elortzak, eta abenduaren 20ko azken finalaurrekoan ariko dira Amuriza eta Ugartetxea, Gernikan. ■ I.E.

Durangoko finalaurreko saioan ariko da Igor Elortza, azaroaren 25ean



GEURE DURANGALDEA

Libe Mimenza  
Kazetaria



### ESC, Ctrl, Ctrl + Alt

Oxigenoak ez du errepedeetako bizilagun izan nahi, karbonoaren inbasioak akatu dio asfaltoarekiko amodioa. Kable eta diodoz osatutako burmuinak paseatzen ditugu goizero eta letrak gosaltzen ditugu, hizketan egin behar ez izateko. Berriak zaharrak dira goizetan eta zaharrak, berri gauero. Nork dio eguzkiak ez duela desagertzea atsegin? Ba al dakizu desagertzen denero ilargia izatearekin amesten duela? Erlojuen orratzak diktaturak besterik ez dira. Denboraren dogmaktikotzen gaitu eta mendeak diruditen minutuen uholdean galtzen dugu arnasa. Nork esan zuen zuhaitzek ez dutela hitz egiten? Nork esan zuen lorak eta edertasuna bikiak direla? Eta zeiniek ez dutela hitzak beste balio? Aurrera egiten dugun aldiro atzera goaz. Igotzera behartzen gaituzte, baina jarrita amaitzen dugu. Idazleek kaligrafia arazoak dituzte eta guk, gukzenbakitan soilik pentsatzen dugu. Aulkiak asmatu zituenak ez zuen gure ipurdia ezagutzen. Gozoa dena soilik jaten dugu eta ez dakigu heriotza apreziatzen. Bustita bizi gara eta miopeak gara. Atzera egiten dugun aldiro aurrera goaz. Lur hartzera behartzen gaituzte, baina hegaz egiten amaitzen dugu. Gure bihozkadak zintzilikatzen ditugu. Eman beharreko pausoak zentrifugatzen besterik ez dakigu eta emozioek gainezka egiten dute. Ctrl + alt + supr  
Eta zu zer?  
Eginbeharrak behar bezala burutzen. Estimuloei erantzunez erreakzionatzen. Agenda besapean pasiatzen. Ze ostixa, margotu gabeko bideak marrazteko beldur al zara? Hoa antzarrak perratzera!  
ESC

ERAKUSKETA >

## 'War is over 1937-2012': hainbat artista, gerraren zentzugabekeriari buruz

Eguaztenean zabaldu zuten, eta abenduaren 2ra arte bisitatu ahal izango da erakusketa, Durangoko Museoa

Durango eta Gernikako 1937ko bonbardaketei buruzko erakusketa da *War is over 1937-2012*, Massimiliano Tonelli artista italiarrak antolaturikoa. Hainbat artistaren lanak biltzen ditu. Zibilen kontrako bonbardaketa bi horien 75. urteurrenaren harira ekarri dute, *War is over 1937-2012* erakusketa Durangoko Museora, eta abenduaren 2ra arte egongo da bertan ikusgai.

Hainbat artista plastikoren gerraren zentzubako krudelkeriari buruzko gogoetak biltzen ditu, erakusketak, batetik. Margolanen osagarri, baina, film emanaldiak eta poesia errezitaldia ere antolatu dituzte *War is over 1937-2012* erakusketaren barruan. Eguaztenean inauguratu zuten, eta besteak beste, erakusketaren antolatzaileak hartu zuten ekitaldi horretan parte. ■ I.E.

Durango eta Gernikako bonbardaketei buruzko bilduma da erakusketa

Massimiliano Tonelli artista italiarrak antolatu du erakusketa



EMANALDIA >



## Oreka Tx, Kukai eta Amaren Alabak, *Hostoak* ikuskizunagaz, Plateruenean

Musika, dantza eta kantua, tradizioa eta modernitatea, batzen ditu 'Hostoak' lanak. Domekan Plateruenean eskainiko dute

**E**tzi, 17:00etan hasita, eskainiko dute Oreka Tx txalaparta taldeak, Kukai dantza taldeak eta Amaren Alabak abeslari taldeak sortu duten *Hostoak* ikuskizuna, Durangoko Plateruenean.

Oreka Tx-en txalapartaren antzinako soinua berrituak, Amaren Alabak taldeko kantarien ahots indartsuak eta Kukai taldearen dantza tradizionalaren eta modernoaren nahasketatik sortu dute

Oholtzan hogeitik gora sortzaile batzen ditu 'Hostoak' ikuskizunak

ikuskizuna. Egileen berbetan, "musika-tresnak dantzaren eta koreografiaren parte dira, eta kantari eta musikariek, berriz, txalapartaren makilen antzera egiten dute dantza", *Hostoak*-en.

Oholtzan hogeitik gora sortzaile batzen ditu *Hostoak* ikuskizunak: zarpina musikariek eta dantzarik, sei kantarik, eta bideo sortzaile batek hartzen dute parte.

Tradizioaren eta sormenaren arteko jokoa ere bada *Hostoak*, eta besteak beste, Oreka Tx taldeak sortu duten "tututofonoa" instrumentua —baxuaren antzeko soinua egiten duen tresna— izango da Plateruenean entzungai.

Iazko otsailean aurkeztu zuten *Hostoak*, eta Euskal Herriko arte nagusietan eskaini dute. ■ I.E.

FILM LABURRAK > LEHIAKETA

## Durangaldeko sortzaileen 'Cafe de Zimbabwe' izan da irabazlea

Maritalavista taldeak jaso du Elorrioko Arriolako 24 Ordu Digitalean lehiaketaren saria



Maritalavista taldeak jaso du Elorrioko Arriolako 24 Ordu Digitalean lehiaketaren lehenengo saria. Durangaldeko sortzaileek egindako *Cafe de Zimbabwe* film laburrak eraman du aurten, 700 euroko sari nagusia.

Bestalde, Gramola eta Ines & Cia taldeek jaso dituzte finalistentzako 500 euroko sari biak.

Elorrioko eta Durangaldeko zein Gipuzkoa eta Bizkaiko beste hainbat herritako sortzaileak batu ziren azaroaren 2 eta 3an, Elorrioko 24 Ordu Digitalean lehiaketan. Hamasei taldek amaitu eta entregatu zituzten lanak. Lehiaketaren antolatzaileek proposaturiko gaia

ardatz hartuta, 24 orduan egin behar zituzten film laburrak.

Hauexek izan ziren lehiaketaren antolatzaileek parte-hartzaile guztiei eman zizkieten oinarriak: film laburra 'sen ona' gaiari buruzkoa izatea, "hoa antzarrak perratzera" esaldia jasotzea, eta 'seinalez tapenagaz' loturiko objekturen bat agertzea.

Lehiaketara aurkezturiko "lanen kalitateagatik, eta zapatuko sari banaketa ekitaldian batu zen ikusle kopuruagatik" ere, oso pozik daude antolatzaileak.

**Zazpi urteko uzta**

Arriolan antolatzen duten 24 Ordu Digitalean lehiaketaren azken zazpi edizioetako irabazleen filmak eskainiko dituzte, azaroaren 11n eta 12an, Elorrioko antzokian.

Interneten ere ikusgai daude, lehiaketara aurkezturiko lanetako asko. Aurtengo irabazleen lana: [www.anboto.org-en](http://www.anboto.org-en). ■ I.E.

Lehiaketara aurkezturiko "lanen kalitateagatik" oso pozik antolatzaileak

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 10 19:00etan  
**IZARREN DISDIRA JAIALDIA**  
Sarrera gonbidapenarekin.

AZAROAK 11 17:00etan  
**OREKA TX + KUKAI + AMAREN ALABAK**

AZAROAK 15 20:00etan  
**JOSU ZABALA**  
KANTUAREN KANTOIA. Sarrera doan.

AZAROAK 16 23:30ean  
**PAPE NDIAYE THIOPET**  
KONTZERTUA. Sarrera 15-18 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**MUJERES QUE MUEVEN EL MUNDO**  
Coro Entredós  
Azaroak 10 • 20:00

**PUBLIKOARI GORROTO**  
Artedrama Euskal Laborategia  
Azaroak 11 • 19:00

Azaroak 11 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

Juan Jose  
Gastañazatorre  
PP



## Zergen igoera

Gaur egungo egoeraren aurrean, berebizikoa da ekonomia behar bezala kudeatzea. Erakundeek zerga-bilketan eta diru-sarreratan igarri dute gainbehera, baina krisialdi honetan, herritarrek gara benetako kaltetunak. Argi dagodatorren urteko aurrekontu guztiek izango dituztela murrizketak eta mozketak. Kontua da, non erabili bisturia. Udal aurrekontuetan, begi-belarri zainduko dugu EAJren jarduna. Gauza bera egin dugu aurretiaz ere, zergen eta udaleko tasen eztabaidan.

Jeltzaleek durangarren zergak murrizteko urrezko aukera galdu dute, esaterako higiezin kasuan edota eraikuntza eta obren kasuan. Era bertsuan, tokiko merkataritza eta ekonomia sustatzeko aukerari muzin egin diote. Zerga-hobariaren bidez egin zezaketen, hala nola zaborrena, edota atzeraldian dauden enpresei hobariak emanez edota jardura ekonomikoen gaineko zergatik salbuetsita.

EAJk bide errazari ekin dio, ordea: % 2,5 igo ditu zergak. Alderdi Popularraren ustez, bada go zer doitu. Tasak izoztu eta familia bakoitzaren errenten arabera zergak murrizteko aukera zuten. Halaber, tokiko ekonomia susper zezaketen, denden eta enpresen beharrei egokitu. Gauzak hobeto egin zitezkeela pentsatuta, Durangoko Alderdi Popularrak ez du onartu EAJk ezarritako zerga-igoera, eta gobernu taldeko zerga-ordenantzen 18 zuzenketa egin ditu. Gure ustez, bazegoen tarte nahikoa durangarrek zerga arloan duten zama gutxitzeko. Horregatik, beste zerga mota batzuren alde egin dugu, dendak, enpresak eta krisiak kaltetutako familiak ardatz hartuta.

EAJk erakutsi du ez daukala Alderdi Popularrarekin negoziatzeko borondateirik. Are okerrago. Azkenean, zergak igo ditu durangarren kaltetan. Kontuan hartuta Udalak balantza positibo duela, eta zorrik ez duela, bai, bazegoen nahikoa marjina beste fiskalitate bat ezartzeko. Baina jeltzaleek aukera hori baztertu dute. 2013ko aurrekontuak begi-belarri zainduko ditugu.

\*Erredakzioan itzulia

## Azaroaren 10eko Herri mobilizazioaren deia: Giza eskubide guztiak, Euskal Presoak Euskal Herrira!

Hamarkadetan luzatu den gatazkari konponbide justu bat eman eta denon artean bakea eraikitzeke aukera berriak zabaldu dira Euskal Herrian, eta bide honetan bat egin dute azken hila-beteotan erakunde eta kolektibo ugari gure herrian.

Gatazkaren oinarriak eta ondorioak konponduko dituen bidea da denon artean egin nahi duguna. Munduko beste hainbat herrialdetan bezala, gurean ere beharrezkoa izango da preso eta iheslaren herritarren afera konpontzea. Espainiar eta frantziar espetxeetan dauden euskal preso politikoen giza eskubideak errespetatzea berehala hartu beharreko neurria dela pentsatzen dugu.

Zentzu hortan, eta Aieteko Nazioarteko konferentzian bildutako adituen aholkuei jarraituz, azaroaren 10ean Baionako karriketan manifestatzerako dei egiten dugu, ondoko lehen aldarrikapen inguruan:

- Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea.
- Eritasun larriak dituzten presoek libratzea.
- Bizi osorako espetxe zigorrera daramaten legeria berezien deuseztatzea, (Espainian 197/2006 dotrina eta perpetuite kondena Frantzia).
- Zigorraren bi herenak edo hiru laurdenak bete dituzten presoek libratzea, eta Frantzia baldintzapean askatuak izan daitezkeen presoek libratzea.
- Isolamendu egoerakin bukatzea.
- Euskal iheslari politikoen aurkako jazarpenarekin amaitzea.

Bai, iritsi zaigu garaia, Euskal Herriko hiritar orori, izan jatorri, ideia politiko edo erligioso desberdinetako, bakearen eraikitzaile izateko; hau da, Euskal Herriaren bakea izan dadin sortzen ari den dinamika herrikoien aktore zuzenak izateko. Horregatik, Durangoko Herrira bilguneak, larunbat honetan Baionan burutuko den mobilizazioan parte hartzerako gonbidatzen zaituzte herritar guztioi!

Durangoko Herrira

**Zure iritzia, gutuna edo fotode-nuntzia helarazteko helbideak:**

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta  
astekaria@anboto.org**

**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN  
zenbakiagaz batera bidali behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

## Elkarlana eta desobedientzia

Lehenik eta behin gure zorionik beroena helarazi nahiko genieke lan tresna hauek erabili dituzten (eta erabiltzen jarraitzen duten) elkarte zein herritarrei. Hasierako hitz hauen esanahia ulertzea iristeko, bi adibide jarri nahiko genituzke mahai gainean: batetik Gazteluko bizilagunek urteetan eduki duten pazientzia Abadiñoko udalak erakutsitako jarrera lotsagarriaren aurrean eta, bestetik, Gaztaiñodi Elkarteak, ezberdinen arteko lanaz, aurrera daraman proiektua.

Lan egiteko era ezberdinak dira aipatutakoak. Hala ere, bai elkarlanak baita desobedientziak ere, helburu bat daukate amankomunean: egun bizi ditugun etengabeko ukazioei aurre egitea.

Esan bezala, goian adierazitako desobedientzia eta elkarlana abiapuntuz hartuta, urte luzez pairatutako utzikeria instituzionalari aurre egin nahi izan diote Gazteluko bizilagunek, bertako autobus geltoki zaharrek lanei ekinez. Izan ere, udalean eskaria bide eta era ezberdinetan hainbestetan aurkeztu arren, azken honek beti entzungor egin die herritarren proposamenei. Horrela, udalak hartutako jarreraz gogaituta, beraien politzikoko dirua jarri eta jardunari ekin diote, egun, biltzeko leku "batuago" bat sortuz.

Zelaietako Gaztaiñodi Elkarteak, berriz, oraingoz 40 lagun inguruz osatutako ideia anitzeko jende multzoa bildu eta helburu bateratu baten aldeko proiektua garatu berri dute, erabileraz ezberdinetarako txoko bat garatuz.

Ezker Abertzaleak urte luzeak daramatza bi lan eredu hauek gizarteratu nahian. Instituzio askoren utzikeri eta mugimendu ezaren aurrean, argi utzi nahi dugu desobedientziak eta elkarlanak (ezberdinen arteko aldebarreko mugimenduan oinarrituta) berebiziko garrantzia hartzen dutela, hots, ezinbesteko direla. Izan ere, soilik baliabide hauen erabilpenaz lortuko baitugu herri bezala dagozkigun eskubide zibil eta politikoak bermatzea.

Azkenik, besarkada beroa bidali nahi dugu Gaztelu, Amaitermin, Urkiola, Irazola, Mendiola, Lebario, Sagasta, Murueta, Gerediaga eta Astolara, funtsean, bertoko auzotarrak baitira Abadiñoko udalaren utzikeria gehien pairatzen dutenak. Aldi berean, herritarrei beraien beharrezkoak betearazteko ekindako borrokari tinko eusteko deia luzatzen diegu, baita gure lanerako prestutasuna adierazi ere.



Abadiñoko Ezker Abertzalea

### Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko azaroaren 9a  
10. urtea - 479 zk.

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,  
Jone Alberdi.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onandia,  
Amaia Ugaldé, Ane Elordi.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzaileak:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako,  
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokirola

# KIROLAK >

## Korrika egiteko ohitura sanoa sustatu gura dute

Gurutze Frades triatletak korrika egiteko ohiturarik ez dutenak kirol hori probatzera animatzen ditu azaroko astelehen arratsaldetan



Azaroko astelehen guztietan Landako kiroldegiaren aurrean ipini dute hitzordua. Kepa Aginako

**M**unduan kirol erraz eta merkerik bada, hori korrika egitea da. Zapatilla eta arropa erosoak jantzita, edonork egin dezake kirol hori, edozein unetan gainera.

Durungaldean asko hazi da korrika egiteko ohitura. Bidegorriek ere lagunduko zuten kirol horren sustapenean. Kanean egunero gurutzatzen dira mendi lasterketarako edo kroserako prestatzen ari diren pauso luzeko kirolariak, eta sasoiari eustea beste helbururik ez duten pauso laburrakoa.


Azken horiek motibazioa behar dute, akaso. Distantzia

luzeko triatlaien Espainiako txapeldunaren ondoan korrika egiteko aukera tentagarria ote zaie? Mugarra triatloi taldeko Gurutze Fradesek ekimen berri hori abiatu du korrikarako zaletasuna sustatu guran. Azaroko astelehen guztietan, 19:30ean, Landakoko igerilekuen parean batzen direnekin korrika irteten dira Frades eta Mugarrako hainbat kide. Sekula korrikarik egin ez dutenei edo aspaldian utzita dutenei zuzenduta dago.

Pasa den astelehenean 11 lagun batu ziren. Emakume asko animatzea gustatuko litzaioke Fradesi, korrika egiteak

emakume askori lotsa ematen diela uste duelako. Hala ere, ekimena gizon zein emakume, zahar zein gazte, korrika egitea ohitura bihurtu gura duten hasiberri denei zuzenduta dago. Bertaraten direnek beti izango dute alboan Mugarrako ordezkari bat, atzean geldituagatik inor ez da bakarrik sentituko.

Ekimen honetatik korrika egiteko taldeak sortzea gura luke Gurutze Fradesek. Horixe nahi dute asteleheneko lehen saiora joan zirenek ere. Lagunak egin eta asteko egun batzuetan korrika elkarrekin egiteko taldeak sortzea. ■ J. D.




- Teresa Marcos  
- 45 urte, Durango

“Sekula ez naiz korrika aritu; aukera ona da probatzeko”


“Finessean edo oinez sarritan ibili naiz, baina sekula ez naiz korrika aritu. Aukera ona zen probatzeko. Korrika elkarrekin egiteko talde bat sortzea asko gustatuko litzaidake. Bestela, iluntzen duenean erreparoa ematen dit bakarrik irteteak. Talde batez errazago egingo zait”.

“Edozeinekin eta edonoiz praktika daitekeen kirola da”

“Jende berria ezagutzeko eta horiekin talde bat sortzeko esperantzaz etorri naiz. Nire hobbia beste batzuekin partekatzea gustatuko litzaidake. Udatik hona ez naiz korrika irten eta ohitura onak berreskuratzeko modua ere bada. Edozeinekin eta edonoiz praktikatuta daitekeen kirola da”.



- Ana Rosa Minguez  
- 40 urte, Durango



- Ainhoa Larrabide  
- 40 urte, Durango

“Taldean, denbora arinago joaten da eta entrenigarriagoa da”

“Bada urtebete ez dudala korrikarik egin. Osakidetzarako oposaketak prestatzeko utzi nuen. Lehen bakarrik irteten nintzen. Taldean denbora arinago pasatzen da, entrenigarriagoa da. Gainera, zeure burua irtetera behartzen duzu horrela, berdin euria ari badu edo hotz badago”.



- Felix Villanueva  
- 45 urte, Zaldibar

## “Gogoz eta ilusioz txakurra eta biok parean gabiltzala uste dut”

Felixek eta Sua Border Collie-ak Txakurkrosa egiten dute; txakurragaz batera egiteko krosa

**Noiz hasi zinen txakurkrosa praktikatzen?**

Aurretik ere ibiltzen nintzen, baina iaz Pirinioetan egiten den lasterketa bat ikusi eta interesa handitu zitzaidan. Gipuzkoan txakurkros lasterketa batzuk antolatzen zituzten, eta parte hartu nuen. Oso esperientzia positiboa izan zen. Apurka parte-hartzaileekin berba egin eta jende atsegina ezagutu nuen. Denok nahi izaten dugu irabazi, baina txakurrei diegun estimua dago horren gaineratik.

**Zelan entrenatzen da txakurragaz?**  
Txakur ia denak jaio dira korrika egiteko. Ezagutzen dut jendea tri-neoei edo trizikloei tiraka-eta txakur

rekin entrenamendu espezifikoki egiten dituztenak. Nik ez dut halakorik egiten. Nik egiten dudana egiten du berak; korrika noanean nirekin dator, eta lasterketa sasoiaren neure elikadura zaintzen dudanean, berea ere zaintzen dut.

**Txakurkros elkarte bat sortu nahi duzu Durungaldean.**

Txakurra lurretako Zaunk txakurte-gira eramaten dut behar dudanean. Hango kide batek esan zidan hainbat jende zegoela interesatuta. Atzoko lehen batzarrean 18 lagun batu ziren. Atea irekita dago edonorentzat [info@zaunk.com]. Ez dakit elkarteak zer izaera izango duen: txapelketatan parte hartze-

koa, aisialdira begirakoa... Batzarretan erabakiko dugu hori guztia. Txakurrei gustatu egiten zaie beste txakur batzuekin korrika egitea. Gehiago ikasten dute; motibatu egiten dira, joko bat balitz moduan hartzen dute.

**Korrika irteten zaretenean bietako nork gozatzen du gehien?**

(Barreak). Erdi eta erdi esango nuke. Lasterketa bat hasi aurretik txakurrak urduri eta gogotsu egoten dira. Buztana goian izaten dute eta pozik dauden seinalea da hori. Txakurrak horrela ikusita norberari ere gogoia pizten zaio. Gogoz eta ilusioz parean gabiltzala uste dut.

Dena dela, lasterketa barik ere gozatzen dut txakurragaz. Arnes barik irteten garenean nire atzetik etortzeko esaten diot edo aurretik. Hiru-lau oihu egin eta niregana etortzen da, berriro korrika aldegitteko. Jolas moduan hartzen du. Arnesa ipintzen diodanean desberdina da; badaki korrika egitera irten garela eta entrenatzen gabiltzala.

# Iñigo Gabiriak hasiko du Elorrioko Mendi astea

Azaroaren 12tik 16ra, egunero, konferentzia bana eskainiko dute mendian hamaika abentura bizi izan dituzten mendizaleek



Abuztuan parapenteagaz Pirinioak zeharkatu zituen parapentelari elorriarrak.

**M**endiaren xarma eta arriskuak bertatik bertara ezagutu dituzten mendizale adituek euren abenturak kontatuko dituzte azaroaren 12tik 16ra Elorrioko, Erdella mendizale taldeak antolatutako hitzaldi zikloan.

Iñigo Gabiriak irekiko du zikloa astelehenean, eta Pirinio mendikatean izan duen esperientzia pribilegiatua kontatuko du. Mendiak eskalatu beharrean, elorriarrak zeharkatu egin ditu, hegaz. Abuztuan Gipuzkoatik Gironara (Herrialde Katalanak) arteko 440 kilometroak parapentez egin zituen eta bere bizipenen berri emango du.

Oihana Beristain eta Joseba Aldanondok ere munduko tontor asko ikusi dituzte. Ez ikusi bakarrik, baita zapaldu ere. Bergarako eskalatzailak hamarkada bi daramatzate munduko paretarik latzenak eskalatzeko. Martitzenean euren lorpenetako bi jasotzen dituen ikusentzunezkoa eskainiko dute: Jordaniako Wadi Rum desertuan eta Patagoniako (Argentina) Cochamo inguruan egindako eskalada saioak, hain zuzen.

Eguaztenean Fidel Mendia etorriko da Elorriora, eta Europa ekialdeko mendikateak eskiekin zeharkatzen bizitako abenturak laburbiltzen dituen dokumentala eskainiko du. Kaukaso, Tatra, Basnko eta Transilvaniatik ibili zen mendizale nafarra. Errumaniako Karpato mendikatean astebete eman zuen eta dokumentalak bertako biztanleen bizimodua ere jasotzen du.

Egueneko gonbidatuek ez dute aurkezpenik behar. Alex Txikon eta Carlos Suarez mendigoizale eta eskalatzaila ezagunak dira. *Morir por la cima* ikusentzunezkoak Suarezren ibilbide oparoa erreparatzen du. Alpinismoari lotutako bizipenez gainera, oinarri saltoari buruz egingo du berba, azken aspaldian hartu duen zaletasuna. Oinarri saltoa parakaidismo modalitate bat da; hegazkinetik beharrean, oinarri finko batetik egiten da salto. Txikon ere parakaidismo modalitate horretara zaletu da, eta hainbat salto egin dituzte biek elkarrekin.

Mendi Asteari amaiera emateko, barikuan, Andoni

Ormazabalek Xabier anaiari eskaintako dokumentala ikusi ahal izango da. Xabier Ormazabal mendian hil zen, 22 urte zituela. ■ J. D.

## DATAK

**Azaroaren 12an**  
- Iñigo Gabiria: *Transpirenaika parapentez; Kantauri itsasotik mediterraneora*

**Azaroaren 13an**  
- Oihana Beristain eta Joseba Aldanondo: *Escalando por las paredes de todo el mundo*

**Azaroaren 14an**  
- Fidel Mendia: *Esqui en el este de Europa*

**Azaroaren 15ean**  
- Alex Txikon eta Carlos Suarez: *Morir por la cima*

**Azaroaren 16an**  
- Andoni Ormazabal: Mendian hil zitzaion Xabi anaia oroitze dokumentala

\* **Konferentzia guztiak 19:30ean hasiko dira Iturri kultur etxean**

## Bizkaitarrak gipuzkoarren kontra Olazar txapelketan

Binaka, Altzelai eta Diez bizkaitarrak faborito dira Santxo eta Aspuru gipuzkoarren aurka

Zaldibarko Olazar pilota txapelketako final zortzirenetako partidu bi jokatu dituzte datorren egunean, 21:30etik aurrera. Binaka zein lau t'erdian bizkaita-

arren eta gipuzkoarren arteko norgehiagokak egongo dira.

Binaka, Altzelai arrigorri-garrak eta Diez portugaletarak Santxo eta Aspuru gipuzko-

arren aurka jokatu dute. Gipuzkoako bikotea jotzaileagoa da, baina bizkaitarrek esperientzia eta segurtasuna dituzte euren alde. Horregatik, Altzelai eta Diez dira final laurdenetara sailkatze faboritoak.

Lau t'erdian Arrieta markinarak Artola amezketarraren aurka jokatu du. Kasu honetan, gipuzkoarra da faborito. Arrieta ondo moldatzen da kaiolan, baina Artola sasoian dago eta erraz bilatzen du zuloa. ■ J. D.

## ADITUAREN TXOKOA

Ruben Perez  
Euskaltel-Euskadiko  
txirrindularia



## Denboraldiaren balantzea

Denboraldi hau luzea izan da niretzat. Urtarrilaren 15ean Australiako *Tour Down Under*-en hasi eta Vendeeko Tourragaz amaitu dut urriaren 14an. Bien artean Frantziako Tourra eta Espainiako Itzulia izan ditut: 86 lehia egun, guztira.

Denboraldi osoan, oro har, ez naiz ondo sentitu. Behar bada, aurreko denboraldiekin alderatuta, aurten izan dut egun ahul gehien. Ez dakit zergatik gertatu den; urte denak ez direla berdinak izaten pentsatu beharko dut. Dena dela, emaitza aipagarriak ere izan ditut: Suitzako Itzuliko bigarren postua eta Espainiako Itzulian, Lagos de Covadongako etapako bigarren postua. Flanderseko klasika ere azpimarratuko nuke, bikain ibili nintzelako, nahiz eta esperientzia faltaren ondorioz, ezin izan nintzen garaipenerako lehiatu; azkenengo koskan aurreko taldetik atzera geratu nintzen.

Urtebetek askorako ematen du. Hiru sasoi puntu gorena izan ditut: lehenengoa, Australiatik Lieja-Bastogne-Lieja klasikaraino, tartean Tirreno Adriaticoko klasika eta neguko eta udaberriko guztiak. Bigarren sasoi puntu gorena Madrilgo Itzulian hasi zen. Segidan etorri ziren Bayern Rundfahrt, Suitzako Tourra, Espainiako txapelketa eta Frantziako Tourra. Hirugarrena izan da sasoi punturik onena, alde handiagaz. Bigarrenaren hasiera ere ona izan zen, baina Frantziako Tourrera heldu eta ez nintzen sentitu espero nuen moduan. Uste dut nire bekatua tourra ehuneko ehuneko hastean izan zela, orain arte beti % 90ean hasi dudanean, falta zitzaidan % 10 lehenengo astean hartzeko. Kasik amaitu zaizkit oporrak. Azaroaren 15ean hasiko dut aurrendenboraldia.

\*Erredakzioan itzulia

## Callejak sorpresa eman nahi du Cafes Baquen

Julen Calleja zaldibartarrak Dario errioxarra du arerio; irabaziz gero, finalerdietan legoke

Cafes Baque pilota txapelketa azken txanpara heltzen ari da apurka-apurka. Julen Calleja zaldibartarrak Dario errioxarren aurka jokatu du datorren eguaztenean, 19:00etan, Mañarian. Kadete mailako partidu hori irabazten badu, finalerdietarako sailkatuko da. Partidu gatxa du zaldibartarrak. Dario txapelketa irabazteko faborito nagusienetakoa da bere mailan.

Durangaldeko beste Calleja bat ere finalerdietara hel daiteke. Multzoburua denez, Eneko Calleja iurretarrak azaroaren 21ean jokatu du txapelketa estreinako partidua, Etxebarria gernikararen aurka. Calleja biek irabazten badute, finalerdietan elkarren aurka jokatu dute Abadiñon, hilaren 28an. Finala abenduaren 2an jokatu da lurretan. ■ J. D.

## Berriz-Abadiño, gora begira ipintzeko derbia

Goialdean badabiltza ere, talde biek apurka alde jan behar diete Zalduari eta Fruizi

Zapatuan, igoera postuetara hurreratu guran dabilzanen arteko derbia jokatu dute Berriz eta Abadiñok, Berrizburun. Talde biak sailkapenaren erditik gora daude: laugarren Berriz, eta zazpigarren Abadiño.

Hala ere, igoera postuetan indartsu dabilta Zaldua eta Fruiz, eta orain arteko zortzi jardunaldietan abantaila polita hartu dute gainerako taldeeki-

ko. Esate baterako, Berriz laugarren egon arren, zazpi puntura du Fruiz, eta zortzira Zaldua liderra. Abadiñok hamar puntura du igoerako lehenengo postua. Beraz, talde biek behar dituzte hiru puntuak. Gainera, irabazteko moduko partiduak dituzte sailkapeneko bi onenek. Zalduak, esaterako, Apurtuarte azken sailkatua hartuko du Solobarrian. ■ J. D.



# Sailkapeneko lider dela doa Murgoitio Elorriona

Etzi Superprestigio Txapelketako ziklo-kros proba dago Elorrion



Agus Ruiz, Joseba Gorostiza, Aitor Agirre eta Joseba Mugika ziklo-kros proba aurkezten.

**D**omekan, Superprestigio Txapelketako laugarren ziklo-kros proba jokatu dute Elorrion. Gizonen elite mailan Egoitz Murgoitio borroka gogorra izango du Isaac Suarez, Aitor Hernandez eta enparauekin. Emakumeen elitean Rocio Gamonal asturiarra da faborito argia.

Superprestigio txapelketako lau lasterketa joan direnean, Egoitz Murgoitio abadiñarra (Hirumet taldea) lider dago. Joan zen asteburuan lasterketa bi izan zituen: Muskizkoa irabazi egin zuen, eta Laudion bigarren amaitu zuen Aitor Hernandezen atzetik. Elorrioko probaren ostean, beste lasterketa bi geratuko dira txapelketa amaitzeko. Emakumeetan, berriz, maila handia

erakusten ari da Rocio Gamonal. Euskaldunen artean, Olatz Odriozola gipuzkoarra izan daiteke lan handiena eman diezaiokeena.

Gainerako mailei dagokiernez, Pablo Lastra (Hirumet) lider dago 23 urtez azpikoan, eta Ismael Barba madrildarra du arerio nagusia. Zein bere mailetan, beste batzuen jarduna ere hurretik jarraitu beharko da, esaterako Aritz Hernandez elorriarrarena, Jon Munitxa abadiñarrarena, Adrian Sainz durangarrena (Beste Alde taldekoak, hirurak) eta Gontzal Garcariena (Elorrioko Gaur Renault taldekoa). Nesketan Arantza Dillo lurretako Udala taldeagaz ibiliko da juniorretan.

Aurten 36. aldia egingo du Elorrioko probak. San Jose inguruko landan 400 bat partehartzaile batuko dira. ■ J. D.

## ORDUTEGIA

- Domekan, azaroak 11**
- 09:00etan: Master 40, 50 eta 60 mailakoak
  - 09:45ean: Master 30
  - 10:30ean: Kadeteak
  - 11:00etatik 11:15era: Sari banaketak
  - 11:30ean: Juniorrak. Emakumeen elitea eta 23 urtez azpikoak
  - 12:30ean: Gizonen elitea eta 23 urtez azpikoak
  - 13:45ean: Sari banaketa

## Gonzalez final laurdenetan da Aspuru garaitu ostean

Tornosolo Kopako bigarren jardunaldia jokatu zen Abadiñoko trinketean joan zen asteburuan. Buruz buru nagusien lehen mailako bi partidu jokatu ziren, eta Mikel Gonzalez berriztarra eta Mikel Rafael arabarra izan ziren irabazleak.

Gonzalezek Asier Aspuru abadiñarra izan zuen aurkari eta xamur garaitu zuen: 40-31. Aspuru ondo aritu zen arren, Gonzalezek partidua kontrolpean izan zuen uneoro. Garaileak argi erakutsi zuen abadiñarra baino koska bat gorago dagoela gaur egun. Hala ere, Aspuru 31 tantora iristea lortu

## Gonzalez hurrengo aurkaria Ipar Euskal Herriko Jeannots da

zuen, oso lan txukuna eginda. Garaipenari esker, final laurdenetarako sailkatu da. Gonzalez hurrengo aurkaria Ipar Euskal Herriko Jeannots izango da, hilaren 16an.

Mikel Rafaelek Sopelako Gordonen aurka jokatu eta 40-27 irabazi zion. Lehenengo zatian partidu orekatua jokatu zuten, baina partidu erditik aurrera nagusi agertu zen arabarra. Rafaelek Rober Uriarte abadiñarraren aurka jokatu du hurrengo partidua, gaur, 19:00etan. Ander Antxia abadiñarrak ere gaur jokatu du Ugarteren aurka. ■ Ane Elordi

## Uriarte eta Antxia abadiñarrek gaur jokatu dute

## Agenda

### ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

#### DRT - Eibar

Zapatuan, 17:00etan, Arripausetan

#### EUSKAL LIGA

#### DRT - Urbealde

Zapatuan, 15:30ean, Arripausetan

### FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

#### Iurretako - San Pedro

Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

#### LEHENENGO ERREGIONALA

(gizonak)

#### Berriz - Abadiño

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

#### Zaldia - Apurtuarte

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

#### BIGAREN ERREGIONALA

#### Ezkurdi - Bermeo B

Domekan, 18:00etan, Arripausetan

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

#### Elorrio B - Lemoaberri

Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

#### LEHENENGO ERREGIONALA

#### (emakumeak)

#### Elorrio - Mungia

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

#### ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

#### Mallabia - Bilbo Tecuni

Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian

#### MAILA GORENA

#### Sasikoa B - Iturritxu

Zapatuan, 18:00etan, Landakon

#### Presion Break - Bakio

Zapatuan, 17:15ean, Landako kiroldegian

### SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

#### Tabirako Baque - Mondragon Unib.

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

# Emilio de Villotaren taldera batuko da Urien hiru urterako

Lehenengo biak F3an egingo ditu; hirugarrena World Series-etan

Asteburuko atsekabea apurren bat gozatuko zitzaion Igor Urien pilotuari. Autoko matxura batek esku-eskura zuen Europako Radical Masterra irabazteko aukera barik utzi zuen domekan, Montmellon. Zapatuko lehenengo lasterketa bigarren amaituta lider zegoen; bigarren lasterketan ezin izan zuen postu hori pistetan defendatu. Baina atzean geratu da asteburu beltza, eta aurretik datorkionak askoz itxura erakargarriagoa du. Emilio de Villotak bere taldera batzeko hiru urteko eskaintza egin dio gazte abadiñarrari (17 urte).

De Villotak Europako talderik indartsuenetakoa gidatzen

du. Epe horretan Formula 3an hasi eta World Series-etara helitzea da helburua. World Series txapelketak Formula 1erako atak zabaldu dizkio pilotu askori. Lehen urtea F3 mailara moldatzeko izango litzateke; bigarrena F3 txapelketa irabazten saiatzeko eta hirugarrena World Series-etako lehenengo hamarren artean geratzeko.


Abenduaren 6an eta 7an test batzuk egingo ditu Urienek talde berriagaz Xerezko zirkuituan (Andaluzia).

Proiektua erakargarria da. Batetik, epe luzera begirakoa da eta urtetik urtera aurrerapauso bat egiteko planifikatuta dago.

Bestetik, azpiegitura lehiakorrek eskaintzeko talde kapaza du atzetik. Datozen asteetan babesleak bilatzeari ekingo diote. Pedro Urienek (Igorren aita) argi du hiru urterako sponsor bat bilatu behar dutela.

### Oso denboraldi ona

Igor Urienek maila handia erakutsi du aurten, Europako Radical Masterrean parte hartzen zuen estreinako urtean. Frantziako Paul Ricard zirkuituko lasterketa biak irabazi zituen. Azkenean, bigarren amaitu du sailkapen orokorrean, Christian Kronegar irabazlearengandik hiru puntura bakarrik. ■ J. D.



Montmelloko lehenengo lasterketan podiumera igo zen.

# AISIALDIA

gazte gara gazte!



## Izarren Distira kazetari gazteen ikuspuntutik

Izarren Distirako kazetaritza tailerlean parte hartu duten kazetari gazteek idazluma fina dutela erakutsi dute

Izarren Distiran parte hartzeko hainbat aukera daude: eszenatoki gainera igo eta ikuskizun bat eskainiz, bideo bat grabatuz, edota kazetaritza tailerlean parte har-

tuz. Izarren Distiraren barruan lehen aldiz antolatu den tailer honen helburua da, gazteen ikuspuntutik lehiaketan gertatzen den guztiaren berri ematea.

Taileraren alde teorikoa urriaren 20an jorratu zen, Durangoko Behargintzan egindako saioan. Bertan, kazetaritzaren oinarriko kontzeptuak landu eta

albiste, kronika edota elkarrizketa bat egiteko beharrezko tresna eta ezagutzen inguruko azalpena jaso zuten bertaratutako berriemal gazteek.

Ondoren, ikasitakoa praktikan jarri behar zuten. Horretarako, arkatza eta papera eskuan hartu eta Izarren Distiraren barruan antolatutako ekingiza baten berri eman behar zuten albiste, kronika edota elkarrizketa baten bitartez.

Parte-hartzaile guztien artean, Laura Ruiz 12 urteko gazteak aurkeztu du lanik txukunena. Bere kronikatxoan Anboto astekarian argitaratuko da (ezkerreko atal-txoan), eta Durangoko Plateruena kafe antzokian izango den erakustaldian 8"ko Tablet bat jasoko du, azaroaren 10ean. Zorionak Laura!

Izarren Distirako finalari dagokionez, zapatu honetan izango da, 19:00etan, Plateruenean. Bederatzi talde igoko dira eszenatikira; guztira 35 gazte.

ELKARRIZKETA > LAURA RUIZ-EN ELKARRIZKETA YLENIA BAGLIETTO EPAILEARI

### Larunbatean artisten entsegu-maratoia izan zen Zaldibarren

Larunbatean, urriaren 27an, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara, Izarren Distirako parte hartzaileek ikuskizuna entsaiatzeko aukera izan zuten Zaldibarren. Horretarako, egun osoa eman zuten ikuskizunak hobetzeko eta dudak galdetzeko, kastin eguna baino lehen.

Durangoko lagun batzuk Zaldibarren egon ziren: Ainara de Jesus, Laura Ramos, Clodagh Lopez, Haizea Ortega eta Nuria Llouas. Antzerkia asko gustatzen zaie, dibertitzen direlako, eta Izarren Distira irabazteko beraien ametsa errealitate egingo litzateke. Oso ondo iruditzen zaie Izarren Distira, gazteentzat aukera handia delako. Entsegu-maratoiaren ostean, Ylenia Bagliettoekin, Izarren Distirako epailearekin, hitz egiten egon ginen:



Ylenia Baglietto epailea, eta Laura Ruiz

**Kaixo Ylenia, kazetaritza tailerretik nator. Galdera batzuk egin ahal dizkizut?**  
Bai, noski.

**Non jaio zinen?**  
Eibarren, baina nortasun agirian Elgoibarko naizela ipintzen du nire aita bertakoa zelako.

**Noiz hasi zinen telebistaren munduan?**  
Orain dela hiru urte. Baina antzerkian orain dela zazpi urte hasi nintzen eta gero telebistan egin dut lan.

**Zein izan zen zure lehen lana telebistan?**

Nire lehen lana telebistan Goenkale izan zen eta oraindik bertan jarraitzen dut.

**Gustatzen zaizu zure pertsonaia Goenkalen?**  
Bai, asko gustatzen zait. Eider, nire pertsonaia, gotikoa da eta asko gustatzen zait jantzi gotikoekin mozarrotzea.

**Zuretzat zein izan da egin duzun pelikularik gustukoena? Zergatik?**  
Ana De Belasco pelikula, orain dela hilabete batzuk egin nuen. Filmeko protagonista naiz eta asko gustatu zitzaidan esperientzia hori.

**Zer deritzozu Izarren Distira egitasmoari?**  
Oso ondo dago. Nik bost urte daramatzat Izarren Distiran nola edo hala parte hartzen eta uste dut gazteek aukera paregabea daukatela beraien talentua aurkezteko lehiaketa honetan.

**Izarren Distirako epaile zara. Zuretzat nola aurkeztu behar dira lanak?**  
Lan garbi bat izan behar da, zainduta eta ondo entseatuta. Saio asko egin behar dituzte dena ondo ateratzeko. Serio egin behar dute.

### FINALEKO JAIALDIA

- Noiz: azaroaren 10ean, 19:00etan
- Non: Plateruena kafe antzokian

#### DATU OROKORRAK

- Probetara 15 talde aurkeztu ziren
- Finalean 9 talde ariko dira; guztira 35 gazte
- Port Aenturarako bidaia bat eskuratuko du finaleko irabazleak

# EDERTASUN GIDA

## ILEAPAINDEGIAK



- Amaia Salazar
- Nukleo ileapaindegia dauka Elorrión

### Modan dauden estiloak

Amaia Salazarrek sasoi honetan modan ipini diren ile estiloen inguruko informazioa dakar. Hainbat eredu aztertu ditu, baina gogoratu du bakoitzak bere estiloa daukela moda ororen gainetik.

Zer dago gaur egun modan tindagaien arloan? Ilearn sustraiean kolore iluna erabiltzen da, eta puntarantz joan ahala argituz joaten da. Ez da kolore jauzi bat. Hau da, harmoniagaz edo progresiboki egiten da. Berdin da kolore marroiak, gorriak edo horailak badira. Ulertzeko, esan dezakegu Sara Carbonerok ipini duela modan.

### Orrazkerari dagokionez zer esango zenuke?

Orrazkera izarra honakoa da: uhin oso handiak puntan eta goiko zonaldea liso, baina bolumenagaz. Ile laburra ere asko eroaten da, baina kopetan beti ile luzeagaz, mozketa femeninoagoa izateko. Alde bat zerora moztea ere modan jarri da, baina berori egiteko oso seguru egon behar duzu. Zeren, gero luze uzteko zer?

### Modak daude, baina guztiok daukagu geure estiloa...

Nahiz eta moda oso markatuta egon, nik beti esaten dut pertsona bakoitzari estilo bat dagokiola, bere bizimoduari dagokiona, bere aurpegiari dagokiona eta batez ere, eroso sentiarazten duena.

## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**ZIRKIN ESTETIKA**  
Jaione Llanos San Anton

AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK  
MANIKURA ETA PEDIKURA  
DEPILAZIOA  
LASER DEPILAZIOA  
BETILEETAKO PERMANENTEA ETA TINTEA ...

Bruno Mauricio Zabala 5  
Tel.: 692 150 173 - Durango

**Ana Camarero**  
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango





# AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdia baino lehen.



Azaroaren 10ean, Ermuan

## SAN MARTIN AZOKA

Nekazaritza azoka, abereen erakusketak eta beste hainbat ekimen izango dira, bihar, egun osoan zehar, Ermuan. Euskal Birusa euskara elkarteak antolatuta, baita, San Martin Kulturala egitarauaz gozatze-ko aukera izango dute, hilabete osoan zehar, ermuarrek.

### ANTZERKIA

#### ABADIÑO

> Azaroaren 10ean, Banarte taldearen **Abuelita de Batman**, 20:00etan, Errotan.

#### BERRIZ

> Azaroaren 9an, Behibi's taldearen **Murren bidaia** umeentzako antzezlan, 18:00etan, kultur etxean.

#### DURANGO

> Azaroaren 11n, Huts Teatroa taldearen **Publikoari gorroto**, 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

#### ELORRIO

> Azaroaren 10ean, Huts Teatroa taldearen **Publikoari gorroto**, 20:00etan, Arriolan.

#### IURRETA

> Azaroaren 9an, Zeanuriko antzerki taldearen **Hiru apurtuta, bat urrututa**, kultur etxean.

#### ZORNOTZA

> Azaroaren 9an, Huts Teatroa taldearen **Publikoari gorroto**, 21:00etan, Zornotza Aretoa.

### AZOKA

#### ERMUA

> Azaroaren 10ean, **San Martin Azoka**. 11:00etan, azokaren irekiera, kalejira, umeen jolasak, artisauak. 12:00etan, neska eta mutilen **baserritar jantzi lehiaketa**, plazako oholtzan. 10:00etatik 12:30era, **euskal jantzien erakusketa**, Lobianon. 12:00etatik 14:00eta-

ra, **haurrentzako eskulanak**, elizpean. **Euskal dantzak**, 12:30etan, plazan. Erromeria, **Luhartz** taldeagaz, 18:00etan, Kardinal Orbe plazan. **Kalejira** Arrasateko gaiteroekin, 19:00etan. **Larraidantza**, 19:30etan, eta zozketa, Orbe plazan.

> Azaroaren 12an, **gaztañerre eguneko** afari-merienda autogestionatua, 19:30etan, Erretea Elkartearen.

> Azaroaren 16an, **Goenkale (Markesaren erretratua) lana**, 22:15ean, Ermua Antzokian.

### BERBALDIA

#### DURANGO

> Azaroaren 9an, **Gaur eguneko afrikar emakumeen literatura**, 19:00etan, Bibliotekan. Afrika Durangon zikloa.

> Azaroaren 9an, Krimenaren Historiako zentroaren X. mahaingurua: **Krimenaren eta zigorraren historiarako iturri judizialak: artxiboek eta agiriak**. 10:00etan hasita, egun osoarako egitaraua, Arte eta Historia Museoa.

### DANTZA

#### DURANGO

> Azaroaren 11n, Amaren Alabak, Oreka Tx eta Kukairen **Hostoak**, 17:00etan, Plateruenean.

### ERAKUSKETA

#### BERRIZ

> Azaroak 18ra arte, **Javier Gorosarriren lana**, kultur etxean.

### IURRETA

> Azaroaren 5etik 16ra, **Munduko Paisaiak** jardunaldien barruko funts bibliografikoak eta argazkiak.

### KONTALARIA

#### DURANGO

> Azaroaren 16an, **Samuel Mountounmjou** (Kamerun) ipuin kontalariaren **iHahula hula! erase una vez...** saioa 5 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, 17:30etan. Helduentzako **Historias de Africa**, 20:00etan, Bibliotekan. Afrika Durangon zikloa.

### MUSIKA

#### BERRIZ

> Azaroaren 9an, **Zebel eta Protokukaratxa** taldeak, 22:30etan, Gaztetxean.

#### ABADIÑO

> Azaroaren 10ean, **Belantzi Bilbaoren organo kontzertua**, 20:00etan, San Trokaz elizan.

#### DURANGO

> Azaroaren 10ean, **Izarren distira** jaialdia, 19:00etan, Plateruenean.

> Azaroaren 15ean, **Josu Zabala** Kantuaren Kantoia zikloan, 20:00etan, Plateruenean.

> Azaroaren 16an, **Pape Ndiaye Thiopet**, 23:30etan, Plateruenean.

#### ELORRIO

> Azaroaren 10ean, **Band Of Friends**. XXIII. Jazz Blues jaialdia. 22:30etan, Ateneoan.

> Azaroaren 10ean, **No hope eta Aggressive Combat**, 22:30etan, Gaztetxean.

#### ZORNOTZA

> Azaroaren 15ean, **Fran Lasuen eta Jose Luis Canal**, 20:30etan, Zelaieta zentroan.

### TAILERRA

#### DURANGO

> Azaroan, **Zoru pelbikoa eta abdomena berreskuratu 1** (eguztenero, 18:30etik 19:30era); **Zoru pelbikoa eta abdomena indartzeko ariketak 2** (eguztenero, 19:30etik 20:30era); **3 eta 7 urte bitarteko haurrentzako tailerra** (martitzenero, 17:00etatik 18:00etara); **0 eta 7 urte bitarteko haurren elikadura naturala** (azaroaren 24an, 10:00etatik 14:00etara) ikastaroak **Ama Zulo kooperatiban**. Izen-ematea, 94 657 00 87 edo 688 860 845 telefono zenbakietan, [amazulo.koop@gmail.com](mailto:amazulo.koop@gmail.com) helbidean, edo Barrenkale 18ko dendan.

### ZINEFORUMA

#### DURANGO

> Azaroaren 14an, **Congo in four acts** dokumentalaren emanaldia, 19:00etan, Bibliotekan. Afrika Durangon zikloa.

> Azaroaren 14an, **Mugarik gabe** dokumentalaren emanaldia, 20:00etan, Plateruenean.

> Azaroaren 15ean, **Princesa de Africa** dokumentalaren emanaldia, 19:00etan, Bibliotekan. Afrika Durangon zikloaren barruko ekitaldia.

### ZINEMA

#### DURANGO

Zugaza

#### Lo imposible

Zuzendaria: J.A. Bayona  
barikua 9: 22:00  
zapateria 10: 19:30  
astelehena 12: 18:30

#### Skyfall

Zuzendaria: Sam Mendes  
barikua 9: 22:00  
zapateria 10: 22:30  
domeka 11: 20:00  
astelehena 12: 19:00  
martitzena 13: 20:00

Umeen zinema

#### Hotel Transilvania 2D

Zuzendaria: Genndy Tartakovsky  
zapateria 10: 17:00  
domeka 11: 16:00/18:00

#### ELORRIO

Arriola

#### Zazpi urteko uzta 25 ordu digitalean

domeka 11: 17:00  
astelehena 12: 20:00

#### ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

#### Amor bajo el espino blanco

Zuzendaria: Zhang Yimou  
domeka 11: 20:00

Zineforuma

#### Buena Vista Social Club

Zuzendaria: Win Wenders  
martitzena 13: 20:00



HARPIDETU ZAITEZ IRRIA ALDIZKARIRA  
2012KO IRAILAREN 16 BITARTE ETA  
OLGETANEKO IKUSKIZUN BONOIA  
OPARITUKO DIZUGU

Ebaki eta bidali edo eraman orri hau zure datuekin helbide honetara: Barroo Elkartea, Pinondo Plaza 1, 1go solairua, Durango KODEA: OLGETAN 12

IZENA:

ABIZENA:

E-POSTA:

TELEFONOA:

HERRIA:



ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 14:00ak arteko epea



**Nikolek** urteko bat bete dau gaur. Bihar lehen aldiz putz egingo dio kandelari! Marrubizko mosu potolo bat familia osoaren partez!



**Oier Amantegik** igandean, azaroaren 11n, 9 urte beteko ditu. Zorionak eta musu handi handi bat familia osoaren partez!




Gogoan al dituzue gaztetxo hauek? Lourdesko 1988ko promozioiko afaria egingo dugu Durangon! Azaroaren 24an, 19:00etan, Arkarazo tabernan elkartuko gara. Animatu zaitetz eta etorri afarira!



Gaur gure txikixek 3 urte eingo dauz. Zorionak **Igor!** Jarraitu horren irribarretsu. Mosu bat Oromiño eta Garaiko familiaren partez!



Gaur, azaroak 9, **Beñatek** 18 urte bete ditu. Zorionak eta musu handi bat familiaren partez! Jarraitu ezazu golak sartzen!



Argazkiko neska polit honek urriaren 29an 10 urte egin zituen. Zorionak **Jon!** Musu handi bat aita, izeko-osaba eta lehengusuen partez!



**Izane Buruaga Fernandezek** 3 urte bete ditu gaur, azaroak 9. Zorionak etxeko danon partez, batez ere aita, ama eta Arain partez!



Zorionak **Lara!** 3 urte betetzen dituzulako azaroaren 11n. Musu pila zure ama, aita, aitite, osaba-izeben eta Daniren partez. Zorionak Larisofil!



Urriaren 24an **Malen** jaio jakun. Zorionak Udane eta Urkiolil! Zorte on etapa barri honetan. Mosu bana Abadiñoeko lagunaren partez!



Abadiñoeko **Garazik** urtebete egin dau azaroaren 7an. Zorionak eta patxo handi bat Irati ahiztaoaren eta familia osoaren partez!



Zorionak izeko **Itziar!** Bihar zure urtebetetzea! Mosu piloa eta besarkada handi bat Jauritxikitik! Ondo, ondo pasau!



Lagun bi honeek urteak egiten dabez. **Enekok**, gaur, azaroaren 9an eta **Iñigok**, astelehenean, azaroaren 12an. Zorionak bioi eta ederto pasau egune! Traguen zain gelditzen gara!



Zorionak, **Naia!** Hamabostero zotz egiten dugun tarta zuk irabazi duzu. Txartela gura duzunean jaso dezakezu gure egoitzan.

Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69  
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

BOTIKAK >

- Barikua, 9**  
09:00-09:00  
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- Zapatua, 10**  
09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
09:00-13:30  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)  
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)  
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)  
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)  
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)  
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)  
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)  
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)  
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)  
09:00-14:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
09:00-22:00  
• Lopez de Aretxaga (Torresolo 4 - Abadiño)
- Domeka, 11**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
- Astelehena, 12**  
09:00-09:00  
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
- Martitzena, 13**  
09:00-09:00  
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
09:00-22:00  
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- Eguaztena, 14**  
09:00-09:00  
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- Eguena, 15**  
09:00-09:00  
• Navarro (Artekale 6 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak** .....112  
**DYA** .....94 620 28 00  
**Gurutze Gorria** .....94 681 09 49  
**Osakidetza** .....94 600 72 00  
**Ertzaintza** .....94 466 93 00  
**Suhiltzaileak** .....112
- GARRAIOAK**
- Euskotren .....902 54 32 10  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño .....94 681 44 70  
Matiena .....606 45 99 88  
Durango Geltokia .....94 681 10 01  
Elorrio Geltokia.....94 682 00 40  
J.L. Uriarte .....670 40 20 02  
I. Estebez .....670 67 82 73  
M Galeano .....670 40 93 30  
Iurreta .....94 620 15 65  
Taxi auzunea.....688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz.....94 682 45 84  
Durango.....94 603 00 00

- Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
Iurreta .....94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia.....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio .....945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz.....94 682 40 36  
Durango.....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
Iurreta .....94 620 08 88

EGURALDIA >

- 9 **17°** BARIKUA ☁  
8 **14°** ZAPATUA ☁☀  
8 **11°** DOMEKA ☁☀  
8 **13°** ASTELEHENA ☁☀  
6 **16°** MARTITZENA ☁☀

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



**Abadiño (Traña-Matiena) -**  
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera  
**Durango -** Zapatu goizetan  
**Zornotza -** Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga ..... 0,80 euro  
Tomatea ..... 3,50 euro/kg  
Piperrak ..... 1,70 euro/doz  
Bainak ..... 5 euro/kg  
Kalabazina ..... 1,80 euro/kg  
Azenarioak..... 1,50 euro/tx  
Arraultzak ..... 3,60 euro  
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg  
Gari ogia..... 3,30 euro



# “Jendaurrean guk uste duguna baino hobeto egiten dugu berba”

Lotsak eta urduritasunak albo baten utzi eta jendaurrean berba egiten irakasten du Manu Marañonek

**E**HNE sindikatuan hogeit urtean ibilitakoa da Manu Marañon. Bertan hasi zen jendaurrean eta komunikabideekin berba egiten. Gustura egiten zuen, halakoetan edukitzen diren urduritasun eta segurantzaz falta barik. Orain jendaurrean berba egiteko ikastaroak ematen ditu. Autoestimua lantzea eta praktikatzeari dira bere bi gomendio nagusiak.

**“Nik ez dut balio jendaurrean berba egiteko”.**

Askok pentsatzen dute hori. Gure kulturaren eta irakas-kuntzan oso gutxitan dugu jendaurrean berba

egitea. Arbelera ateratzen gintuztenean ere, ia zigorrerako zerbait zen. Daukagun sinesmena nahiko kaskarra da: “Ni ez naiz gai hori egiteko, oso urduri jartzen naiz, galderak egiten h a s i k o dira eta ez dut jakin- g o

erantzuten...”. Ez dauka zerikusirik errealitatearekin. Nire ikastaroetan jendea konturatzen da pentsatutakoa baino hobeto egiten duela. Praktikak egiten ditugu bideo kamerarekin eta oso gaizki pasatzen dute hasieran. Pantailan ikusterakoan konturatzen dira nahiko ondo egin dutela, urduritasuna ez dela horrenbeste igartzen...

**Pentsadezakete: “Horiek bai, baina ni lotsatia naiz...”**

Joera daukagu nor bere burua gutxiesteko, eta besteak askoz hobeto ikusteko, baina hori, norberak duen sentsazioa gatik da. Nire aurkezpena entzuten egon eta ondo baloratzen duenak sentsazio bera dauka.

**Autoestimua asko lantzen duzue beraz.**

Hori da gakoa. Nik pentsatzen badut oso urduri jarriko naizela eta zuri geldituko naizela, ez naizela gai izango... aurkezpenean oso ahul egongo naiz.

Nire ikastaroan ikasleek bospasei praktika egiten dituzte. Praktikaz praktika hobeto, solteago ikusten dira ikasleak.

Autoestimua lantzeko onena jendaurrean berba egiteko aukera guztiak aprobetxatzea da.

**Eta etor daitezkeen kritikak?**

Guk entzuleen erantzun edo feedback positiboalantzen dugu. Ondo egindakoak eta hobetzeko proposamenak esaten ahalegin-

tzten gara. Ez dago ohiturarik jendeari ondo egiten dituen gauzak aitortzeko. Gure joera da begiak jendearen akatsetan jartzea. Horregatik nor bere autoestimua landu behar du. Esperimentatu, hanka sartu eta hobetzeko gaitasunean sinetsi behar dugu.

**Irakasle askori gertatzen zaio, gauza asko jakin bai, baina gero transmititzen kostatu...**

Edukiak garrantzitsuak dira baina ikasleek ez dute baloratzen irakasleak asko jakitea, nahiko jakitea baino. Bere jarrera eta hartuemonak baloratzen dute, eta zelako gogoarekin azaltzen duen. Irakasteko gogotsu egoteaz gainera, ikasteko gogotsu egotea ere garrantzitsua da. Irakasleek ikusi behar dute euren ezagupena zati txiki bat dela, eta ikasleei entzuteko prest egon behar dutela. Eduki onak izatea ondo dago, baina hori baserrian barazki onak edukitzea modukoa da. Edukitzeaz gainera, saltzen ere jakin behar da. Hitzaldia ondo egituratzea, gorputz mintzaira lantzea, entzuteko prest egotea... jorratzen ditugu. Eduki barik ez dago ezer, eta edukiagaz bakarrik, oso gutxi dago. Sindikatu edo alderdi politiko bateko bi bozerole ikus ditzakegu, antzeko edukiei buruz berbetan, baina batzuk eta besteak jendearengana duten inpaktua zeharo desberdina izan daiteke.

**Zelan erakarri zintuen gai honek?**

EHNEen egon nintzenean, askotan egokitu zitzaidan komunikabideetan berba egitea. Prentsaurrekoetan, irradian, telebistan... Baserriarekin bilerak egitea ere tokatzen zitzaidan. Gustukoa nuen, eroso sentitzen nintzen. Sinisten nuen egiten nuena eta defendatzen nuena. Izugarritzko gogoarekin egiten nuen, eta normalean pasioa eta emozioak jartzen direnean, urduritasunak gainditu egiten dituzu.

## Mistizismoa

Mistikoegia naizela esango didazue, baina natural ateratzen zait: sabelean zizareak dantzan jartzen zaizkit Durangaldeko historiaren zenbait istorio entzuten ditudanean. Liluratu nauen azkena, Anbotok joan zen astean argitara eman zuena: Mañariko Askondoko koban Neanderthal sasoiko aztarnak topatu dituzte.

Egia da Mañariak baduela erakargarritasun berezia historiaren istorio mistikoentzako. Eskualdearen muturrean mendiek egiten dute muga fisikoa. Inguru horietan, Durangaldeko leku txiki askotan moduan, gorde da historia zaharra. Euskal Herriko azken hartza ere bertan hil zen 1871n, Ezkillarri inguruan. Eta oraindik ez bada historikoa egin, laster egingo da, Mañariko harrobi alboko eraikin batean, ondare natural erraldoia zinez gordetzen zuen jaunaren legatua. Erakundeekukatuta bizi izan da urte askoan, baina laster prestatuko omen du erakustoki berria.

Euskal Herriko azkeneko hartzen hilketa; Mañariako ondare naturalaren museoa; Arginetako eta San Joan Momoiotiko nekropoliak; Inkisizioaren Kuru-tziagako gurutzea; Saibigain mendiko bataila eta bere gurutzea; Iurretako baselizen ibilbidea, tartean, San Martin Amatzakoaren aberastasun historikoa (1027an aipatu omen zen lehenengo aldiz). Gure ondarearen eta aberastasunaren adibide batzuk baino ez dira, ondo ezagutzen ez ditugunak.

Horien eta beste askoren inguruan antolatuta daiteke Durangaldea ezagutzeko eskaintza berria. Automozio fabrikek, fundizioek eta industriek hondoa jokatute, turismo ordenatua eta errespetuzkoa sustatu daiteke kritik ateratzeko. Ez izan beldurrik, honek ez dauka Torremolinosek duen atributurik eta ez da jendea bermudetan pilatuko. Baina, dugun ondarea aprobetxatzeko, eskualde ikuspegiak izan behar dugu, turismo zerbitzuak ere eskualde ikuspegiarekin eskaintzeko. Ona dena eskualdearentzat, ona izango da herri bakoitzarentzat.



### Manu Marañon

Durango bizi da, Dimakoa da jaiotzez

Jendaurreko komunikazioan irakasle eta coach-a

## Nahi duzu jendaurrean berba egiten ikasi edo hobetu?

Ikastaroak Ibaizabal ikastolan, Durangoan.

	AZAROA	ABENDUA	ORDUTEGIA
1. taldea: euskaraz	20, 27	4, 11, 18	17:30-21:30
2. taldea: euskaraz	23, 30	7, 14, 21	17:30-21:30
3. taldea: gazteleraz	19, 26	3, 10, 17	17:30-21:30
4. taldea: gazteleraz	17, 24	1, 15	09:00-14:00

**Irakaslea:** Manu Marañon, formatzailea eta coach-a.

**komunikarte**  
Izan egin esan

Lortu dezakezu ondo egitea.  
Ikas daiteke. Demonstratuko dizut.  
Balio handiko trebetasuna da.

Prezioa: 175 euro



Informazioa eta izen-ematea: [gorospe.t@gmail.com](mailto:gorospe.t@gmail.com) - tel.: 685 728 042 - [www.komunikarte.org](http://www.komunikarte.org)